



sabino
arana
fundazioa

JARDUEREN OROITZA TXOSTENA

2022

SARRERA

Hurrengo orrialdeetan, Sabino Arana Fundazioak 2022an garatu dituen jarduera nagusien laburpena aurkeztuko dugu. Urtearen hasieran, *Emakume Abertzale Batzaren* (EAB) mendeurrena, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegi Historikoaren sorreraren 30. urteurrena eta euskal haurren erbesteratzearen 85. urteurrena gogoratzeko jarduerak antolatu ditugu; *Hermes* aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu ditugu eta hainbat jardunaldi eta saio antolatu ditugu gogoeta eta eztabaida mintzagunearen baitan.

Eta aipaturiko mintzagunea da, hain zuzen ere, jarduera gehien ondu dituen ekimena da bukatu berri den ekitaldi honetan.

Ildo horretan, EAJ-PNV alderdiaren Euzkadi Buru Batzarrak abian jarritako *Entzunez Eraiki* entzute aktiboaren ekimenaren esparruan –horretan parte hartu du gogotik Fundazioak urte osoan–, hainbat topaldi antolatu dira adituen eskutik, gizarteak hainbat gaitan eskatzen dituenak entzuteko, hala nola: erronka demografikoa eta trantsizio soziala, klima-aldaketa, gobernantza, komunitate politikoen identitateak gaur egungo munduan, politikaren erronkak, euskal nortasunaren erronkak, digitalizazioa eta berrikuntza, ongizatearen etorkizuna, lanaren etorkizuna eta 2030 Agenda.

Bestalde, «Euskadin gertatu diren eraldaketa handiak» topaldi-zikloa antolatu dugu. 2022an, eraldaketa ekonomikoa jorratu dugu (Asier Alea eta José Luis Ruiz de Munain); eraldaketa bizikidetzan (Juan M^a Atutxa eta Paul Ríos); eraldaketa administrazioan (Ina Etxebarria eta Javier Bikandi); eta eraldaketa gizartean (Daniel Innerarity eta Xabier Aierdi). Datorren urtean, aldiz, beste eraldaketa batzuk aztertuko ditugu, hala nola industria, teknologia, ingurumen, eta kultura arloetako eraldaketak eta Euskadik munduan duen irudia.

Jardunaldi-mintegien bi ziklo handi horiekin batera, XXI. mendean puri-purian dauden gai eta errealitate guztien azterketa, eztabaida eta horien gaineko hausnarketa bultzatzen jarraitu dugu: emakumeen aurkako indarkeria matxista, Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziaren ondorioak (CoFoE) aztertu ditugu, euskal hezkuntzaren oraingo eta etorkizuneko erronkak, garapenerako lankidetzari buruzko legeen erreformak, gure industriaren udazken-neguetako aurreikuspenak, demokraziaren defentsa gizarte digitalean, euskararen etorkizuna, emakumea kirolean, egungo Ekialde Ertaineko boterearen hegemonia, gatazka eta balantzea...

HERMES pentsamendu eta historia aldizkariari dagokionez, hiru zenbaki berri argitaratu dira: 71. zenbakia (*Emakumeak orainean*), 72. zenbakia (*Euskal hezkuntzaren eraldaketa*) eta 73. zenbakia (*Euskararen erabilera*).

Beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanen esparruan, gogoz parte hartzen dugu beste fundazio, memoria-elkarte, udaletako ordezkari, aldundi, ikastetxe, Europako Alderdi Demokrata eta IED, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Euskaltzaindia eta abarrekin batera antolatutako ekitaldietan.

Halaber, Sabino Arana Sarien XXXIII. edizioa antolatu dugu.

Hori guztia egiten dugu Sabino Arana Fundazioak eztabaidagune gisa duen ahalmena balioesteko. Gogoan izan behar da, bide horretan guztian, Sabino Arana Fundazioak askotariko gizataldeen aintzatespena eta babesa duela, bai gizarte-arloan, bai politika-arloan.

Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela hamahiru urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharra egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatu ditugu DEIA egunkariarentzat 2022ko ekitaldian, *Historias vascas* deritzon sailean.

Amaitu berri den ekitaldian, ondokoen ekarpena jaso dute Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak: Jabier Aspuru, Fernando Mikelarena, Jon Penche, Ernesto García Fernández, Iñaki Berasategi, Óscar Álvarez Gila, Mikel Magunazelaia, Unai Aranzadi, Joseba Agirreazkuenaga, Nere Jone Intxaustegi Jauregi, Asier Madarieta, Karmele Pérez, Gurutze Ezkurdia, Begoña Bibao, Ingo Niebel, Luis de Gezala, Etxahun Galparsoro, Luis Javier Pérez, Iñaki Goiogana, Eduardo J. Alonso Olea, Agurtzane Miñano Mayor Aspiazu, Miguel Álvarez Huidobro, Roman Berriozabal, Jean-Claude Larronde, Pablo Cepeda, Leyre Arrieta, Mikel Gómez Gastiasoro, Juan Madariaga Orbea, Enrique Santamaría, Luis Bilbao Larrondo, Javier Castro, Andres Urrutia, Ekai Txapartegi, Aritz F. Urchaga, Iñigo Camino, Álvaro Aragón, Ascensión Badiola eta Amaia Fano.

Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egin ditugu maiztasun handiz Onda Vascan, eta Bizkaia Irratian noizean behin, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearen. Era berean, gure historialarien aholkularitza edo ekarpena eskatu duten irratiei edo hedabideei ere lagundu diegu.

Historias vascas

Lehen ‘Lau haizetara’ zeritzon sail honetan, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin zerikusia duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratu ohi ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakusten ditugu; liburutegiko eta hemerrotekako aleak ikusgai jarri; gaur egungo gizarteari interesatzen zaizkion gaiei buruzko hitzaldiak partekatzen ditugu; ikus-entzunezkoak; modu batera edo bestera Euskadiko historian eragina izan duten gai historiko eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak eskaintzen ditugu; gure historialariek irratian egindako elkarrizketak...

Sailak hiru atal dauzka:

- Urteurrenak, biografiak, gertaerak eta pertsonaia historikoak, erreportajeak...

Atal hori egunero «elikatzen» da, astelehenetik larunbatera, eta egun batzuetan bi albiste ere igotzen dira, lotutako argazki (mila inguru) eta Sabino Arana Fundazioak koordinatu edo kudeatu duen gaiari buruzko PDF eta/edo erreportaje-audioekin batera.

- DEIA egunkarian, *Historias vascas* sailean argitaraturiko erreportajeak.
- Bideoak: Euskal gizartea XXI. mendean. Atal honetan, historialariek eta hainbat arlotako adituek (antropologia, kultura, ekonomia, soziologia...) astero-astero ekartzen dizkigute Euskal Herriaren historiako gertakari garrantzitsuen eta protagonisten inguruko testuak. Gure kultura, nortasuna eta iragana eraikitzeko ibilbidea.

Bestalde, Deia egunkariarekin elkarlanean, larunbatero gai jakin baten inguruan idatzitako erreportaje historiko, kultural eta/edo antropologikoa partekatzen dugu irakurleekin, aditu baten eskutik.

2022ean, 253 albiste argitaratu ditugu sail horretan, astelehenetik larunbatera (zerrenda doa erantsita).


03 BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK (GRADUKOAK ETA GRADU-ONDOKOAK)

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Connecticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpua, Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa... Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ilido honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dutela gure instalazioetan.

Jardueron helburuak: gazteen beharrei erantzutea, gazte horien garapen pertsonalerako eta profesionalerako beharrezko tresnak izan ditzaten, eta lan-esperientziara hurbiltzen laguntzea.

2022ko ekitaldian, *Hermes* aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 71., 72. eta 73. zenbakiak.



71. zenbakia: «Emakumeak orainean»

Gauza agerikoa da azken hamarkadetan aurrera egin dugula nabarmen eta emakumearen parte-hartzea gero eta erabakigarriagoa dela «lehen mundua» deiturikoaren gizarte- eta politika-esparruetan; hala eta guztiz ere, bide luze egin beharko da oraindik gizonen eta emakumeen arteko berdintasun amestua lortuko badugu.

Hermes pentsamendu eta historia aldizkariaren azken zenbakian (71. zenbakian), politika, erakunde eta hainbat gizarte-esparrutako hogeit bat ordezkariak emakumeek gizaldietan barrena izan duten rola aztertzen dute, eta konpromiso sendoa agertzen dute ekitatea esparru guztietan benetakoa izan dadin.

Ale honetan, ondoko emakume hauek guztiek egin dituzte gogoetak: **Mireia Zarate**, Sabino Arana Fundazioaren presidentea; **Gotzone Sagardui**, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua; **Norma Vázquez**, psikologo feminista; **Eva Ferreira**, UPV/EHUko errektorea; **Maite Alonso**, Euskadiko Eskola Kontseiluko presidentea; **Izaskun Landaia**, Emakundeko zuzendaria; **Almudena Eizaguirre**, Deusto Business School Executive Education-eko zuzendari nagusia; **Jone Uria**, bertsolari eta matematikaria; **Itxaso Atutxa**, EAJ-PNV alderdiaren Bizkai Buru Batzarreko burua; **Idoia Mendia**, Lehendakariordea eta Eusko Jaurlaritzako Lan sailburua; **Maddalen Iriarte**, legebiltzarkidea eta EH Bilduko bozeramailea Eusko Legebiltzarrean; **Iraia Iturregi**, Athletic Club-en emakumezko taldearen entrenatzailea; **Garazi Sánchez**, surflari profesionala; **Marta Macho**, zientzialaria; **Carmen Bernabé**, teologoa; **Nieves Fernández**, Unesco Etxeko zuzendaria; eta **Amaia Goikoetxea**, Kazetarien Euskal Elkargoko dekanoa eta Euskal Kazetarien Elkarteko presidentea.

Susana Martín Oxinalde kazetariak elkarrizketa egin dio Eusko Jaurlaritzako Berdintasun sailburuari, **Beatriz Artolazabal** andreari. Azkenak aditzera eman du lanean jarraitu behar dugu gazteekin batera eraikitako berdintasuna lor dezagun.


Maidar Aldasoro Díazek irudiztatu du zenbakia.

72. zenbakia: «Euskal Hezkuntzaren eraldaketa»

Euskal Hezkuntzaren Lege-proiektu berria aurrera doa, Legebiltzarrean % 90eko babesa lortu duela. Lege berri hori urrian onartuko ei da Legebiltzarrean, eta badirudi eraldaketa ekarriko diola hurrengo belaunaldietako euskal hezkuntzari. Horregatik, garrantzitsua da erdietsitako adostasunari eustea eta legebiltzar-talde guztien artean euskal hezkuntza-sistema berriaren ildo nagusiak zehaztea.

Hezkuntza-, irakaskuntza- eta erakunde-esparruetako esperientzia egiaztatuko ordezkariak datozen hamabi urteetarako nahi dugun euskal eskolaren eredua aztertu dute *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkariaren azken alean (72. zenbakia).

Zenbaki berri honetan, ondokoen gogoetak aurkituko ditugu: **Begoña Pedrosa**, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea; **Mikel Juaristi**, Gurutzetako (Barakaldo) Eskola Publikoko zuzendaria; **Eva Rodríguez Salcedo**, Durangoko San José-Jesuitas ikastetxeko zuzendaria; **Aitor Uriondo**, Axular lizeoko (Donostia) zuzendaria; **José Manuel Bujanda**, zuzendaria, irakaslea, ikasketa-burua, ikuskatzailea eta kabineteko zuzendari ohia; eta **Laura Alegre**, Generalitateko Funció Directiva i Lideratge-ko zuzendariorde nagusia.



72. zenbakiko elkarriketan, **Jokin Bildarratz** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak azaldu du «oso garrantzitsua dela akordio zabaleko hezkuntza-legea izatea etorkizunean, horri esker, datozen urteotan hezkuntzaren esparrua ez baita alderdikieriaz borrokatzeko elementu izango, egonkortasuna eskaintzen digun elementua baizik, lanerako iparra argi eta garbi izan dezagun, eta, urteak igaro ahala, guztiok amesten dugun ekitate eta bikaintasun osoko proiektu hori landu dezagun».

Beste alde batetik, **Joseba Agirreazkuenaga** EHUKo Historia Garaikideko katedradunak Jesus Sarria, *Hermes* aldizkari historikoaren sortzailea (1917), ekarri digu gogora. **Lazaro Etxegarai** EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzietako doktoreak orain dela 66 urte zendu zen Bonifazio Etxegarai euskal legelari eta historialaria ekarri du gogora. Eta **Joseba Iñaki Sobrinok**, Zuzenbide eta Antropologiako lizentziadunak, euskal hauteskunde-araubidean dagoen ordezkari-tza politikoaren distortsioa aztertu du.

Jose Felix Gonzalez San Sebastian artistak egin du *Hermes* aldizkariaren 72. ale honen lan grafikoa.

73. zenbakia: «2030eko euskaldun eleaniztuna»

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu **Bingen Zupiriak** eta Hezkuntza sailburu **Jokin Bildarratzek**, hurrenez hurren, euskararen eta euskal kulturaren arloko ordezkari esanguratsuekin batera, datozen hamar urteotako hizkuntzaren eta euskal hiztunen elkartearen etorkizuna aztertu dute *Hermes* aldizkariaren azken alean (73. zenbakia).



Hori guztia joan den uztailean Euskaltzaindiarekin elkarlanean antolatutako mintegi baten emaitza da. Hausnarketek zirrimarratu dituzte Eusko Jaurlaritzak jorratu beharko dituen hizkuntza-erronka garrantzitsuenak, hezkuntza-politikaren aurreikuspenak eta euskal kulturgintzaren lehentasunak. Azken batean, «gizarte berria, modernoa, eraldatzailea, konprometitua eta euskaldun eleanitzez osatua izango da. Munduari irekitako gizarte, herrialde berri eta berritzailea», adierazi Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidentek.

Zupiria eta Bildarratz sailburuez eta Mireia Zaratez, honako hauek parte hartu dute 73. ale honetan: **Xabier Barandiaran**, Soziologiako doktorea eta Deustuko Unibertsitateko Soziologiako irakaslea; **Nagore Ipiña**,

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa; **Jorge Gimenez**, itzultzaile eta idazlea; **Eva Rodriguez**, Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxeko zuzendaria; **Elixabete Larrinaga**, Politika eta Administrazio Zientzietako doktorea eta unibertsitateko irakaslea; eta **Josune Zabala**, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria.

Elkarrizketan, **Bernardo Atxagak** dio «euskararen eta Herriaren sekretua euskal gizarteak hizkuntzari ematen dion balioan dagoela»; Atxagaren esanetan, baina, «balio hori, batzuetan, ikusezina da». Halaber, oso jakingarriak dira idazleak Irulegiko eskuari buruz egindako hausnarketak, «ustekabeko oparitzat» jota. Eztabaida eta erabilera politikoez gain –azken finean, hizkuntzarekin ere nahasten direnak–, «beharko genuke euskaldunok, beharko lituzke euskarak haren jatorria, antzintasuna, berezitasunak eta abar berretsi?» galdetu dio bere buruari.

Gabriele Muguruza artistak (Donostia, 1992) egin du *Hermes* aldizkariaren 73. ale honen lan grafikoa.

Mintegiak

5.1 Sabino Arana Fundazioa, EAJ-PNV alderdiaren «Entzunez Eraiki» entzute aktiboaren ekimenarekin bat eginik (10 mintegi: *entzunez eraiki – Think Next*)

EAJ-PNV alderdiaren Euzkadi Buru Batzarrak abian jarri duen 'Entzunez Eraiki' entzute aktiboko prozesuaren esparruan –Sabino Arana Fundazioa elkarlanean dabil ekimen horretan–, hainbat mintegi antolatu dira gizarteak eskatzen duena entzun,

herritarrekin hitz egin eta horretaz guztiaz hausnartzeko, Alderdi gisa barneratu eta, batik bat, ekintza bihurtzeko helburuz, Euskadik aurrera egin dezan.



Martxoaren 2an, Hernanin (Gipuzkoa), Euskadiko erronka demografikoa eta gizarte-trantsizioa aztertzeko jardunaldia antolatu genuen (horren berri eman genuen aurreko Hermes-en) Horren ondotik, maiatzaren 11n, beste jardunaldi bat

antolatu genuen klima-aldaketari lotutako gaiak jorratzeko.

Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen jardunaldia, eta Xabier Barandiaran EAJ-PNV alderdiaren Berrikuntza Politikoko arduradunak koordinatu zuen. Bertan, alderdi jeltzaleko berrogei arduradun inguruk eta euskal gizarteko hainbat arlotako ordezkariak parte hartu zuten. Adituek enpleguaren, emantzipazioaren, kontziliazioaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik jorratu zuten gaia, topaldi horren helburu nagusia erronka demografikoaren 2030eko euskal estrategiaren edukiak aztertzea eta zehazte aizan zela.

Horren ondotik, maiatzaren 11n, beste jardunaldi bat antolatu genuen klima-aldaketari lotutako gaiak jorratzeko.

EAJ-PNV alderdiaren EBBko Lurralde Antolamendu, Garraio eta Garapen Iraunkorraren arloko arduradun M^a Eugenia Arrizabalagak adierazi zuenez, «EAJ-PNV alderdiaren politika publikoek eta erakunde-ekintzak zuzen-zuzenean eman behar dute ingurumenaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren berri».



Topaldi horretan, ingurumenari lotutako eragile eta sektoreek nahiz adituek parte hartu zuten, hala nola **Arantxa Tapia** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak, **Kirsten Dunlop** Climate-KICeko CEOk (era telematikoz), **Jorge Fernández** Orkestrako Energia arloko koordinatzaileak, Itziar Eizagirre ingurumeneko adituak eta **Alexander Boto** IHOBEko zuzendari nagusiak.



Maiatzaren 18an, Entzunez Eraiki entzute aktiboko prozesuaren baitan, «Euskal erakunde-sistemaren etorkizuneko erronkak» jorratu genituen.

Jardunaldi horretan, kudeaketa eta administrazio publikoko adituek errealitate berri horiek guztiek euskal erakunde-sistemari nolatan eragiten dioten hausnartu eta eztabaidatu zuten. Honako hauek hartu zuten parte hizlari gisa: EAJ-PNV alderdiaren EBBko Berrikuntza Politikoko

arduraduna eta Deustuko Unibertsitateko Soziologiako irakaslea, **Xabier Barandiaran**; **Imanol Lasa**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Estrategia eta Azterlanen arduraduna; **Maite Barrueta**, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria; Rafael Jiménez Asensio, Herri Administrazioetako aholkularia, Elixabete Etxanobe, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioetarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua; Javier Bikandi, Euskal Autonomia Erkidegoko Herritarren Arretako eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria; eta Igor Filibi, EuroBasqueko presidenteordea eta UPV/EHUko ikertzailea.

Ekainaren 14an, Iruñeko Tres Reyes hotela aukeratu zen «Gure aroko komunitate politikoen nortasuna/k» delako gaia jorratzeko eta horri buruz hausnartzeko.

Irujo Etxea elkartearekin elkarlanean antolatutako jardunaldi horretan, ondokoek jardun zuten hizlari: **Maria Solana** Geroa Baiko parlamentaria; **Jon Sarasua** Mondragon Unibertsitateko irakaslea; **Ion Muñoa** Deustuko Unibertsitateko irakaslea; eta **Ana Urkiza** Eusko Ikaskuntzako lehendakaria. Hogeita hamar bat adituk parte hartu zuten arratsaldeko jardunaldi horretan, besteak beste, erakundeetako ordezkari, unibertsitateetako kide, enpresaburu, ekonomialari eta abarrek.



Hurrengo jardunaldia ekainaren 24an izan zen, EHUren 41. (XLI) Udako Ikastaroen esparruan, eta «Politikaren erronkak» jorratu ziren bertan.



Politikari eragiten dion krisiari buruzko gogoeta egin zuten unibertsitateko irakasle eta aditu ezagunek, eta herritarren eta erakunde publikoen arteko harremanetan gertatzen ari diren aldaketak aztertu zituzten.

Jardunaldian, ondokoek parte hartu zuten: **Mireia Zarate**, Sabino Arana Fundazioaren presidentea; **Itziar Alkorta**, EHUko Udako Ikastaroen zuzendaria; **Xabier Barandiaran**, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko



irakaslea; **José Antonio Gómez Yáñez**, Sigma Dos enpresako Analisi zuzendaria eta Karlos III.a Unibertsitateko Soziologiako irakaslea; **Joan Navarro**, Unibertsitate Konplutentseko Politika eta Administrazio Zientzietako irakaslea eta LLYC aholkularitza-etxeko kidea eta Gai Publikoen saileko presidenteordea; **Miriam Ureta**, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea; **Xavier Peytibi**, Ideograma aholkularitza-etxeko komunikazio

politiko eta publikoko aholkularia; eta **Ardita Driza**, hauteskunde prozesuetako IKTen erabileran aditua.

Eta ekainaren 29an, «Digitalizazioa eta berrikuntza. Datuak gure bizitza aldatzen ari dira» izenburuaren ildoan, Gasteizko Erdi Aroko Hiriguneko Enpresen Zentroko Agora aretoan, adituek azaldu zuten datuen digitalizazioak eta/edo erabilerak gure eguneroko bizitzan zelan eta zertan eragiten duten, dela gure bizimoduan, dela lan egiteko moduan. Mintegia baliatuz, aldaketa horien guztien zenbait adibide

ezagutzera eman ziren, hainbat arlotan: osasuna, mugikortasuna, zerbitzu publikoak edo negozioen sorrera enpresetan.

Jardunaldi horretan, honako hauen hitzaldiak entzun genituen: **Lidia Marquez**, Telefónica-Euskadiko Administrazio Publikoko arduraduna; **Alberto Ortiz de Zarate**, desideDatum Company-ko aholkularitza-zuzendaria; **Lorenzo Díaz de Apodaka**, Zibersegurtasuneko Euskal Zentrokoa; Ibermaticako **Aitor Moreno**, adimen artifizial eta konputazio kuantikoko aditua; **David Ruiz**, Smartup-eko zuzendari exekutiboa; eta **Nuria Mosteiro**, Versia Digital Business konpainiako zuzendaria eta Marketin korporatiboko zuzendaria.

Politika arloko erronkak: «Euskal Nortasunaren erronkak XXI. mendean»

«Euskal nortasunaren erronkak XXI. mendean» izenburuaren ildoan, ikastaroaren bigarren eta hirugarren saioak uztailaren 5ean eta 6an egin ziren, Miramar jauregian. Iñaki Goirizelaia EHUko Elektronika eta Telekomunikazio Saileko Ingeniaritza Telematikoko katedradunak koordinatu zituen saioak.

Bigarren ikastaro horretan, azken urteetan edo hamarkadetan izandako eraldaketen zioz, hala nola digitalizazioa eta adimen artifiziala, klima-aldaketa, eraldaketa demografikoa, migrazio-mugimenduak eta beste, gizartean gertatzen ari diren aldaketak aztertu ziren. Aldaketa horiek guztiek ziurgabetasun handiko egoera sortuko dute etorkizun laburrean eta errotik aldaraziko dute harremanak lantzeko modua.



Topaldi horietan, nortasunaren gaia jorratu zen, beste herri batzuetako adibideak ezagutzeko aukera izan zen eta, bidenabar, euskal nortasunaren egoera aztertu, Euskal Herrian bertan zein munduan.

Horretarako, honako hauek guztiek parte hartu zuten saioetan: **Onintza Odriozola**, UPV/EHUko irakaslea; **Joseba Sarrionandia**, idazle eta olerkaria; **Iratxe Esnaola**, Telesforo Monzon eLab ekimenaren presidentea; **Mireia Zarate**, Sabino Arana Fundazioaren presidentea; **Billy Kay**, idazlea; **Salvador Cardús**, Bartzelonako Unibertsitate Autonomokoa; **Dhato Turavishvili**, dramagile, eleberrigile eta itzultzailea; **Imanol Galdos**, Donostiako Udaleko Kultura zinegotzia; **Peter Loge**, George Washington Unibertsitatekoa; **Anne-Marie Chiramberro**, Hella Basque blogaren sortzailea; **Julieta Gaztañaga**, Buenos Airesko Unibertsitatea-CONICET erakundeko ikertzailea eta Antropologia Saileko irakasle laguntzailea; **Urko Aiartzta**, TMeLab-eko zuzendaria; **Mikel Burzako**, Sabino Arana Fundaziokoa; **Maialen Goirizelaia**, UPV/EHUko irakaslea; **Juan Jose Ibarretxe**, Agirre Lehendakari Center-eko zuzendaria; **Naiara Goia**, Arantzazulab Gizarte Berrikuntzako Laborategiaren zuzendari nagusia; **Ana Agirre**, MCC korporaziokoa; **Jon Maya**, koreografoa eta Kukai Dantza taldearen zuzendaria; **Lorea Arakistain**, Puntu Eus-eko Marketin eta Komunikazio zuzendaria; **Igor Campillo**, Euskampus fundazioaren zuzendaria; **Iñaki Goirizelaia**, UPV/EHUko katedraduna; **Beñat Hach Embarek**; **Eneko Axpe**; **Eduarne Benito**; eta **Eduarne Leon**.



Urriaren 14an, Gasteizko Europa biltzar-jauregian, Barandiaran aretoan, entzute aktiboaren ekimenari lotutako beste jardunaldi bat egin zen eta, horretan, «Ongizatearen etorkizunekoak» jorratu ziren.

Andoni Ortuzar EAJ-PNV alderdiaren EBBko buruak, bideo bidez –Erroman zegoen Europako Alderdi Demokrataren biltzarrean parte hartzen, alderdi horretako

presidenteordea da eta- jeltzaleek gizarte-politikak eta pertsonen ongizatea sustatzeko duten konpromiso sendoa azpimarratu zuen.

Beste alde batetik, **Beatriz Artolazabal**, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, ongizatearen eraikuntza partekatua oinarri harturik lan egiteko beharraz mintzatu zen, Era berean, etorkizuneko erronka handiei gagozkiela, zainketak eta gizarteratzea aipatu zituen.

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak «Euskadin, Estatuan eta Europan, maila anitzeko lankidetzazko gobernantza indartzeaz» ere hitz egin du, eta «berrikuntza, jasangarritasuna eta etorkizuna bermatzeko adostasun politikoak eta aberri-mailako adostasunak ehuntzeko behar-beharrezko premia» azpimarratu zuen.

Eusko Jaurlaritzako sailburuaz gain, **Maite Peña** Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatuak «Gizarte-politiken arloko berrikuntzen» gaiari heldu zion. **Sergio Murillo** Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako diputatuak, berriz, «Gizarte-politiken eredu instituzionalaren jasangarritasuna» aztertu zuen. **Emilio Sola** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatuak «Zainketen sistemaren etorkizuna» aletu zuen. **Ana Sofi Telletxeak**, Deustuko Unibertsitateko irakasleak, «Gizarteratze-politika aktiboen etorkizuna» aztertu zuen. Azkenik, **Rafael Lopez Arostegi**, hirugarren sektorearen inguruko aditua «Gizarte-politiken arloko etorkizuneko erronkak» gaiaren inguruan mintzatu zen.



Urriaren 20an, gizarte, ekonomia, erakunde eta unibertsitate arloetako eragileek «Lanaren etorkizuna» aztertu zuten. Aztergai nagusiak ondokoak izan ziren:

Euskadiko lan-merkatuaren etorkizuneko giltzarriak, talentua atxiki eta erakartzeko gaitasuna eta Euskadiko enpleguaren egoera hobetzeko beharrezkoak diren eraldaketak bultzatzeko beharra.

Jardunaldiari hasiera emateko ekitaldian, EAJ-PNV alderdiaren EBBko burua, **Andoni Ortuzar**, EAJ-PNV alderdiaren Berrikuntza Politikoaren arduraduna, **Xabier Barandiaran**, eta Sabino Arana Fundazioaren presidentea, **Mireia Zarate**, izango ziren.

Atarikoaren ondotik, honako hizlari hauek jardun zuten: **Sara de la Rica**, UPV/EHUko Ekonomia katedraduna eta ISEAKeko zuzendari nagusia, etorkizuneko euskal lan-merkatuaz mintzatu zitzaigun; **Jorge Arévalo**, Lanbide Heziketako sailburuordea, eta **Iván Jiménez**, Bizkaia Talent-eko zuzendari nagusia Euskadiko talentuaren erronkaz aritu ziren; eta **Loli García**, Euskadiko CCOOko idazkari nagusia, eta **Eduardo Arechaga**, Confedebateko zuzendari nagusia, euskal gizarte-eragileek Euskadiko enpleguari buruz duten ikuspegiaz aritu ziren.

Azkenik, **Imanol Pradales** 'entzunez eraiki' ekimenaren ekonomia eta enpleguaren lantaldeko koordinatzaileak jardunaldiaren ondorioak laburbildu zituen.

Hogeita hamar aditu inguruk (erakundeetako, sindikatueta eta enpresetako ordezkariak, ekonomialariak, unibertsitateko irakasleak eta abar) parte hartu zuten topaldian.

Eta azaroaren 3an, «Euskadik 2030 Agendari egin dion nazioarteko ekarpenaz» hitz egin eta eztabaidatu zuten mintegi horretan parte hartutakoek.

Iñigo Arbiol Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako eta Enpresa Diplomaziako Masterraren zuzendariak «Euskal 2030 Agenda munduaren ingurumarian» izeneko gaia aletu zuen.

Joshua Monje-Jelfsek, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko kideak (ELGA), **Gonzalo Pizarrok**, Garapen Jasangarrirako Helburuak txertatzeko politiken aholkulariak eta **Carles Llorens** ORU-Fogarreko (Eskualde Batuen Erakundea) idazkari nagusiak, munduan pobrezia desagerrarazteko eta planeta babesteko zein bakea eta oparotasuna bermatzeko egiten ari diren ekimenei buruzko hainbat alderdi jorratu zituzten. **Arancha Acha**, Unesco Etxeko zuzendariak, jardunaldian izan diren eztabaida-saioak moderatu zituen.

Jardunaldiaren amaieran, **Javier Cortése**k, Tokiko sareetarako UN Global Compact erakundearen arduradun ohiak, jardunaldiaren ondorioak eskaini zituen.



5.2 Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziaren ondorioak. *Eta orain zer?*

Europako Alderdi Demokratik (PDE-EDP) mintegi bat antolatu zuen maiatzaren 13an Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, Bilbon, COVID-19ak sorrarazitako krisiaren eta Ukrainako inbasioaren osteko Europaren etorkizunari buruz hausnartzeko helburuz.

Europako hainbat erakunde eta antolakunde Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziaren –CoFoE– ondorioak balioesteko eta abiarazteko egiten ari diren jardueren esparruan antolatu zen jardunaldia. Hala, PDE-EDPk Konferentziako ordezkariak, Europako Parlamentuko diputatuak eta erkidego gaien inguruko adituak bildu zituen jardunaldi honetan, galdera bakun eta guztiz egoki bati erantzuteko: *Eta orain, zer?*

5.3 Euskal hezkuntzaren oraingo eta etorkizuneko erronkak

Eusko Legebiltzarrak onartu zuen aipaturiko akordioa martxoaren 25ean, legebiltzarkideen % 90ek baino gehiagok alde bozkatuta. Hirugarren jardunaldian, akordio horren ardatz estrategikoetako bat jorratuko da: lidergo berriak eta ikastetxeen ahalduntzea.

Ikastetxeen zuzendaritza eta koordinazio didaktikoan eskarmentu zabala duten pertsonen parte parte hartu zuten jardunaldian, besteak beste, ondokoek: **Begoña Pedrosa Lobato**, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea; **Anna Jolouch i Anglada**, pedagogoa, Hezkuntza Zientzietako doktorea eta Bartzelonako Hezkuntza

Fakultateko arduraduna; **Mikel Juaristi Izagirre**, Gurutzetako ikastetxe publikoko zuzendaria; **Eva Rodríguez Salcedo**, Durangoko josulagunen ikastetxeko zuzendaria; **Aitor Uriondo Usandizaga**, Axular lizeoko zuzendaria; **Xabier Balerdi Iraola**, Euskadiko Ikuskatzaila; **José Manuel Bujanda Arizmendi**, zuzendaria, irakaslea, ikasketa-burua, ikuskatzailea eta kabineteko zuzendari ohia; **Laura Alegre Sanz**, Kataluniako Generalitateko Funció Directiva i Lideratge Pedagógic saileko zuzendariorde nagusia; **Josune Ariztondo**, irakaslea eta kimikaria; eta EAJ-PNV alderdiaren EBBko Hezkuntza sailaren arduraduna, **Ana Esther Furundarena**.



5.4 *Pagasarri edo Himalaia lankidetzari buruzko legeen aldaketek*



Sabino Arana Fundazioak 2013az geroztik Garapenerako Lankidetzari buruz antolatzen dituen jardunaldien barruan, maiatzaren 25ean, ondoko mintegia antolatu zuen: «Pagasarri edo Himalaia lankidetzari buruzko legeen erreformak».

Garapenerako nazioarteko lankidetzan eskarmentu zabala duten profesionalek, lankidetzari- agentzia eta -erakundeetako arduradunek, katedradunek eta abarrek gaur egun dauden garapenerako lankidetzari-motak eta herrialdeek azken urteotan hartu dituzten aukerak aztertuko zituzten SAFen.

«Pagasarri ala Himalaia? Garapenerako lankidetzari buruzko legeen erreformak» izenburuaren ildotik, besteak beste, ondokoen ekarpena entzun genuen jardunaldian: Asier Hernando, nazioarteko lankidetzari aditua eta Oxfameko Latinoamerika eta Karibeko eskualdeko zuzendari ohia; Leire Pajín, ISGlobaleko zuzendaria eta Osasun eta Gizarte Politikako ministro ohia; Laura Celià, Balear Uharteetako Gobernuak Lankidetzari zuzendari nagusia; eta Félix Fuentesnebro, Medicus Mundi elkartearen federazioaren zuzendaria eta Garapenerako Lankidetzaren Estatuko Kontseiluko kidea.

5.5 Adingabeen aurkako sexu-abusuak hezkuntza ez-formalaren esparruan: kirola eta aisialdia». Kirol-arloan, umeak eta nerabeak babestea, gainditu gabeko erronka

Ekainaren 13an egindako jardunaldi horretan, adingabeek hezkuntza ez-formalaren esparruan (kirol-arloan eta aisialdian) pairatzen dituzten sexu-abusuei buruz eztabaidatu eta hausnartu genuen.

Horretarako, ondokoen hitzaldiak entzun genituen: **Eukene Arana**, haur eta nerabeen aurkako indarkerien prebentzioan eta babesean aditua, ZAIN aholkularitza-enpresan: «Neska-mutilak eta nerabeak babestea kirol-arloan: gainditu gabeko erronka bat»; **Iñaki Alonso**, Athletic Cluben haurren babesaren arduraduna (Aterpe programa): «Haurren babesa kirol-arloan: guztion erronka»; eta **Irene Muguruza**, Eusko Jaurlaritzako familien eta haurren zuzendaria: «Neska-mutilen eta nerabeen aurkako sexu-izaerako indarkeria Euskadin».



Geroago, «Protokoloa eta jardunbide egokiak» izenburuaren ildoan, mahai-ingurua izan zen eta honako aditu hauek parte hartu zuten: **Jon Redondo**, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria; **Carlos Sergio Atxotegi**, Bizkaiko Foru Aldundiko kirol aholkularia; **Jonathan Mujika**, Derioko Udaleko Kultura teknikaria; **Naia Fernandez**, Lointek Gernikako Komunikazio eta Marketin zuzendaria; **Jose Angel Romo**, Bosko Taldea Federazioaren idazkaria; eta **Izaskun Gutierrez**, Gaztetxo Eskolako ordezkaria.

5.6 «Euskadin gertatu diren eraldaketa handiak» zikloa

2022-2023 ikasturtean, Euskadin azken hamarkadetan izan diren aldaketa handiei buruzko zikloa antolatzen ari da Sabino Arana Fundazioa. Zikloak sei modulu izango ditu, eta horietako bakoitzean hainbat saio egingo dira. Ekonomia, gizarte, teknologia, ingurumen eta, kulturaren arloan izan diren aldaketak eta Euskadik munduan daukan eginkizuna aztertuko ditugu ekimenean.

Saio bakoitzean, hainbat adituk jardungo dute dena delako gaia aletzeko. Hala, lehenengoan, irailaren 16an, «eraldaketa ekonomiko-finantzarioa» izan zen abiapuntu. Horretarako, Basque Culinary Centerreko (BCC) Garapen Globaleko Arloko zuzendari **Asier Aleak** eta SpainNAB erakundeko zuzendari nagusi **Jose Luis Ruiz de Munainek** jardun zuten. Lehenengoak «Euskadiko lehen eraldaketa ekonomikotik berrikuntzan oinarritutako bigarren eraldaketara» izenburuko hitzaldia eskaini zuen eta bigarrenak «Eraldaketa ekonomiko eta jasangarri berria».



Jardunaldian, aholkulari gisako ibilbide luzea duten bi ekonomialariek azken hamarkadetan Euskadin jazo diren aldaketa ekonomikoak aztertu zituzten, bai eta aurrerantzean garatu beharko dugun eraldaketa ekonomiko iraunkor berria ere.



Bigarren moduluan, «Eraldaketa gizartean» izenekoren esparruan, **Juan Mari Atutxa** Herrizaingo sailburu, Eusko Legebiltzarreko burua eta Sabino Arana Fundazioaren lehendakari izandakoak eta **Paul Rios**, abokatu, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko ekintzailea eta Lokarriko koordinatzaile ohia, izan ziren Sabino Arana Fundazioak antolatutako «Euskadin gertatu diren eraldaketa handiak» deritzon zikloaren bigarren topaldian. Atutxak eta Riosek «Eraldaketa elkarbizitzan» gaia aztertu zuten, besteak beste,

ETAren jarduera armatuak 50 urtean baldintzatu zuen elkarbizitzak izandakoa.

Ziklo horren barruan, azaroaren 11n, «Eraldaketa Administrazioan» deritzon gaia aztertu zen.

Horretarako, **Javier Bikandi** Eusko Jaurlaritzako Herritarrei Arreta Emateko eta Zerbitzu Digitalerako zuzendariak eta **Ina Etxebarria** Getxoko Udaleko idazkari nagusiak jardun zuten.

Javier Bikandiren hitzaldiak Eusko Jaurlaritza Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Planetan garatzen ari den estrategia, jarduerak eta tresnak izango zuen hizpide, digitalizazioa euskal gizartea eraldatzen ari den aroa aintzat hartuta. Herritarrak ditugu Gobernantza eta Berrikuntza Planen subjektu, helbururik behinena kalitatezko zerbitzu publikoak eraginkortasunez eta gardentasunez ematea baita. Eta

horretarako, ezinbestekoa da, gutxienez, eraldaketa hirukoitza bururatzea: araudi-, antolaketa- eta teknologia-arlokoa.

Beste alde batetik, Ina Etxebarriak Euskal Autonomia Erkidegoaren erakundetze-ibilbideari heldu zion 1975etik gaur egunera arte, eta gure erakunde-sarearen funtsezko elementuak azalduko ditu, bai eta horien arteko oreka eta erakunde-sare horren arrazoi juridiko-politikoak ere.

Abenduaren 16an, **Daniel Innerarity** eta **Xabier Aierdik** «Eraldaketa gizartean» aztertu zuten.

Innerarity irakaslearen arabera «egungo politikak gaitasun estrategikoaren ments handia du; gure politikariak administratzaile saiatuak dira eta oso epe laburrean lan egiten dute; ildo horretan, sarritan amore ematen dute zailtasunak etorkizunera eramateko tentazioaren aurrean, hurrengo belaunaldien bizkar utzita». Daniel Innerarityren ustez, «etorkizunaren ahanztura horren funtsezko arrazoiak gure sistema politikoaren hauteskundearen egitura bera da, bai eta hurrengo hauteskundeak hautetsiak iritzi publikoaren mugimendu azkarrei erantzutera behartzen dituen sistemaren pizgarriarik eza ere». Testuinguru horretan, «gaur egun, kontua ez da soilik politikak aldatzeko erabakia hartzea, eta are gutxiago administrazioa aldatzeko beharrari ekitea; benetako autua da pentsatzea eta politika eraldatzea edo dagoeneko joan zaigun mundu batentzat diseinatutako sistemari heltzea», adierazi zuen.

Bestalde, Xabier Aierdi Deustuko Unibertsitateko Soziologiako doktoreak sistema instituzional indartsua aldeztu zuen, inbertsio burutsua eta gizarte-politiketan ganorazkoa dena egituratzeko.

Aierdik gogorarazi zuen Euskadik, hainbat arrazoiengatik, diru-sarrerak edo gutxieneko errenta bermatzeko sistema bat ezarri zuela laurogeiko hamarkadaren erdialdean. Soziologoaren aburuz, horrelako babesak ezinbestekoak dira «korapilatzen eta estutzen ari den mundu honetan», eta nabarmendu du «gizartearen kalteberatasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta sendoagoa izan behar duela erakundearen bultzadak».

Aierdiren iritziz, «elkartasunaren nolabaiteko haustura iragartzen duten zantzu ugari daude egun, eta sakoneko dinamika horren aurrean, inbertsio burutsua eta gizarte-politiketan ganorazkoa dena egin behar da.

5.7 «Demokraziaren defentsa gizarte digitalean»

«Demokraziaren etorkizuna aro digitalak ekartzen dizkigun erronkei aurre egiteko ahalmenari lotuta dago». Besteak beste, ondorio horretara iritsi ziren politika zientzien, gobernantzaren, gizarte-mugimenduen eta digitalizazioaren iniguruko

adituak Europako Alderdi Demokratikak (PDE-EDP) Sabino Arana Fundazioan, urriaren 26an antolatutako jardunaldian.

Mintegiaren hasieran, era telematikoa, **Sandro Gozi** PDE-EDP alderdiaren idazkari nagusi eta eurodiputatuak; **Stéphane Séjourné** Europako Parlamentuko *Renew Europe* taldeko presidentea; eta **Sylvain Waserman** Frantziako Asanblea Nazionaleko presidenteorde ohi eta Europako Parlamentuko kide ohiak parte hartu zuten. Europako ordezkarien gogoetetan, batzuk nabarmendu behar ditugu, hala nola «gurea lako alderdiek, aurrerakoiek, balio demokratikoei eta balio humanistei atxikitakoek, hausnarketa horren abangoardian egon behar dutela, bestela, Citizen Relationship Management (CRM) delako horri lotutako iraultza gu barik gertatuko baita, eta horixe litzateke, inolako zalantzarik gabe, gure demokraziari gerta lekiokkeen okerreana».



Era berean, adierazi zuten «tresna teknologiko horiek guztiek egiatan nahi dugun gizarte demokratikoa eraikitzeak aukera ematen digutela, hots, herritarrek parte hartuz aintzat hartzeko, jakina denez, erabaki publikoak hartzeko prozedura errespetatzeko eta betiere herritarrek ematen diguten baterako eraikuntzaren balio erantsiz elikatzeak gizarte demokratikoa».

Irene Zuluaga legebiltzarkide eta Eurobasqueko presidentearen gidaritzapean, honako hauek parte hartu zuten ondoz ondo: **Daniel Innerarity**, Filosofia Politikoko katedraduna, Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendaria eta Florentziako

Europar Unibertsitate Institutuko irakaslea; **Miquel Urmeneta**, kazetaria, unibertsitateko irakaslea eta komunikazio-aholkularia; **Rafa Suso**, estrategia, komunikazio eta enpresen *branding* arloetako aholkularia; **Carmen Beatriz Fernández**, doktorea eta DataStrategia Consultores konpainiaren presidentea; eta **Andrzej Potocki**, poloniar politikaria, kazetaria eta historialaria eta PDE-EDP alderdiaren presidenteordea.

Iker Merodiok, ingurune digitaletan espezializatutako kazetariak, hizlariak azaldutako hausnarketak laburbildu zituen ondorio gisa.

5.8 Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren 30. urteurrena. «Artxibo historikoak gizarte garaikidean: Legea, Ondarea eta Memoria»



Sabino Arana Fundazioak eta ALDEEk (Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte) jardunaldi bat antolatu zuten urriaren 27an Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren XXX. urteurrenaren kariaz.

Topaldia, batez ere, dokumentazioaren eta informazioaren arloko hartzaile profesionalentzat antolatu zen eta, gainera, ikertzaileek, ikasleek eta berrikuntza horiei buruzko xehetasun gehiago ezagutu nahi dituzten pertsonak parte hartu zuten.

Lehen hitzaldia **Mikel Aizpuruk** eman zuen, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendariak. Aizpuruk Euskadin azken 40 urteotan izan ditugun artxibo-sistemak azaldu ditu eta «Dokumentu-kudeaketa integralari eta dokumentu-ondareari buruzko legearen» hasimasiak garatu ditu. **Jon Baguesek**, ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboaren zuzendari ohiak (2021eko Manuel Lekuona Saria, Eusko Ikaskuntza) «Ondarea jagoteko ekimen publiko eta pribatuak» izeneko hitzaldian, batik bat, gerra zibilaren garaia aletu du, dokumentu-iturriak bereriazko kasu gisa jorratzeko helburuz.



Avilako Artxibo Militar Orokorren Deskribapen Arloko buruak, **Henar Alonsok**, estatuko memoria demokratikoari buruzko lege berriak artxiboetako informazioa eskuratzeko aukeretan lortu diren aurrerapenen balioa azpimarratu du. Eta **Iñaki**

Goiogana Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko teknikariak Juan Ajuriagerra EAJ alderdiaren buruzagi historikoaren esaldi bat ekarri du gogora: «Egin beharko da». GoioGANAREN esanetan, esaldi horrek «bikain laburbiltzen du diktadura frankistaren sasoian sortutako hainbat euskal kultura-erakunderen adorea eta kemena, estatuak laguntzarik ematen ez ziola euskal kulturari edo, gehienetan, zapaldu egiten zuela». Egoera hartan, «egin beharko zen eta egin zen» azpimarratu du GoioGANAK. Adore horretatik abiatuta sortu ziren Ekin euskal argitaletxea, Euzko Gogoa aldizkaria, ikastolak, Durangoko Azoka, Eresbil, Euskadiko Filmategia... bai eta Sabino Arana Fundazioa eta Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia ere-.

Mintegian, **Fernando Juárez** ALDEEko presidenteak (Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalek Euskal Elkarteak) ere parte hartu zuen jardunaldian.

5.9 Emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiten dion dekalogo prestatzeko topaldia



Sabino Arana Fundazioak, indarkeria matxista aztertzen, horri aurre egiteko jarduketak proposatzen eta emakumeen ahalduntzea bultzatzen aditua den Sortzen aholkularitza-etxearekin lankidetzan, jardunaldi bat antolatu zuen azaroaren 22an «emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiten dion dekalogo bat» prestatzeko xedez.

Norma Vazquezek indarkeria matxistaren egungo egoera azaldu zuen: aurrerapenak, beharrak eta egiteke dauden jarduerak.

Vazquezen mintzaldiaren ondotik, hainbat talde aritu ziren lan-jardunaldian, topaldiaren helburu behinena betetzeko: konpromisoen dekalogo edo dokumentu bat prestatzea, lege-aldaketekin eta, administrazio publikoaren maila guztietan, erakundeetan gauzatzen ari diren jardunbide egokiekin bat datozen jarduera-ildo nagusiak jasoko dituen.

Era berean, mugimendu feministaren eta biktimen elkarteen nahiz bizirik atera direnen aldarrikapenak jaso nahi izan ziren, indarkeria matxistaren arloko politika publikoak hobetzeko helburuz.

5.10 Emakumeak aberrigintzan

Sabino Arana Fundazioak euskal kultura-adierazpenen memoria aldarrikatzeko xedez, urtero-urtero antolatzen dituen jardunaldien esparruan, aurten, abenduaren 20an, emakumeek betetako eginkizuna aztertu dugu, euskal abertzaletasunaren

balioen hedatzaile izan zirela eta kultura, gizarte-mugimenduak, politika-antolakundeak eta abar baliatuta.

Roman Berriozabalek, Irakasletzako diplomadunak eta euskal abertzaletasunari lotutako argitalpen ugariren egileak, *Emakume Abertzale Batza* (EAB) 1922an, Bilbon, eratu zeneko testuingurua azaldu du, bai eta, antolakunde jeltzaleak Gasteizen egindako lehen urratsak ere, 1923ko ekainean. **Karme Perez** Pedagogiako doktore, UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileak emakume abertzaleek Euskal Herriko hezkuntzan izan zuten eragina eta aitzindaritzak mahairatu zituen. **Begoña Bilbaok**, Karme Perezen lantalde berean diharduen UPV/EHUko ikertzaile eta Pedagogiako doktoreak, erizainen erakundeak (*Euzko Gexozaiñ Bazpatza*) eskaini zuen zerbitzua izan zuen hizpide. Bestalde, **Monica Calvo** kazetari eta antropologoak emakumeek frankismoren garaian pairatutako errepresioari buruz hitz egin zuen, batik bat, Bizkaiko emakumeak gogoan hartuta, hasiera batean, Bilboko Probintzia Espetxean eta Orue etxean kartzelaratuak, epaitu ondotik, beste espetxe nagusi batzuetara bidaltzen zituztenak zigorra betetzera, hala nola Saturraran, Durango edo Zornotzako espetxeetara. **M^a Esther Solabarrieta**, erbesteratuen alaba eta biloba, Venezuelako erbestean izan ziren euskal emakumeen lan nekaezinaz aritu zen. Eta **Nagore Garamendi** aktoreak, EAB elkarteko Alicia Aretxabaleta gogoangarriaren bilobak, bere amamak egindako lana ekarri zuen gogora.

Hitzaldiak

5.11 Indarkeria matxistari buruzko hitzaldien zikloa, Norma Vázquezen eskutik

Norma Vazquez psikologo feminista eta Sortzen aholkularitza-etxeko zuzendariak, indarkeria matxistaren aurkako ikerketan eta esku-hartzean adituak, hainbat jardunaldi eman ditu urte osoan indarkeria matxista pairatu duten emakumeen



esperientziak ezagutarazteko eta erreparazioak nahiz salaketak duten garrantzia azpimarratu du, bai eta tratu txarrak jasandakoen inguruko *gainerako biktimak* kontuan hartzeko beharraz ohartu ere.

Hala, Vazquezek lehen hitzaldia eman zuen urtarilaren 19an Gasteizko Vital Fundazioaren aretoan (Dendaraba). Hitzaldi horretan, mikromatxismoak jorratu zituen, haren esanetan “matxismo sotil eta antzemangaitza, ia ikusezina,

baina izugarri kaltegarria biktimen osasun emozionalarentzat”.

“Mikromatxismoak ez dira txikiak. Gertatzen dena da eguneroko bizimoduan behin eta berriro gertatzen direla eta, hortaz, ohiko bilakatu dira gizartean, baina

matxismoari atxikitako eraso larriak dira. Horregatik, oso garrantzitsua da haiek antzematea eta errotik desagerraraztea”, azpimarratu zuen.

Martxoaren 30ean, Donostiako Loiola Zentroan, tratu txarren emaile bat aita ona ezin izan daitekeela azaltzeko hainbat argudio baliatu zituen.

Maiatzaren 4an, Fundazioaren egoitzan, indarkeria matxistaren biktimen erreparazioari buruzko alderdiak jorratu zituen.

Eta ekainaren 1ean, Iruñeko Tres Reyes hotelean, desparekotasunean oinarritzen ez diren gizonen eta emakumeen sexualitatea eraikitzeko bestelako moduak aztertu zituen.



5.12 30 urte Chávezen estatu-kolpe usteletik: Venezuela bidegurutzean



Euskadiko egonaldia aprobetxatuz, 2021eko Sabino Arana Sarietako bat jaso ostean, Luis Ugalde josulagun euskaldunak, orain dela 65 urte Venezuelan bizi denak, hitzaldia eman zuen Sabino Arana Fundazioan, otsailaren 9an.

Hitzaldian, aita Ugaldek herrialdearen iragan hurbilena aztertu zuen, eta etorkizuneko balizko agertokiez jardun zuen. Aita Ugalde Venezuelako erregimenak egindako bidegabekeriak salatzen altxatu diren ahotsetako bat dugu. Hitzaldian,

Venezuelako oraintsuko historia jorratu zuen, 1992ko otsailaren 4an, Hugo Chavezek buru izan zuen estatu-kolpearen saiakeratik hasita (Chávez espetxean amaitu zen), gaur egunera arte.

5.13 Alejandro Elizalde nafar jeltzale eta erresistentearen heriotzaren 75. urteurrena

Joan den otsailaren 10ean, Irujo Etxea elkartearekin lankidetzan, Alejandro Elizalde Iribarren, nazien kontzentrazio-esparruetan gatibu egon zen baztandar jeltzale eta erresistentea gogoratu genuen haren jaioterrian, Elizondon. Ekitaldia joan den abenduan egitekoa zen, Elizalderen heriotzaren 75. urteurrenean, baina atzeratu egin behar izan zen euri-erauntsiek eraginda.

Etxahun Galparsoro historialari eta Lazkaoko beneditarren dokumentazio zentroko artxibozainak ELA sindikatuko eta EAJ-PNV alderdiko militantearen bizitza ekarri zigan gogora. Gerra Zibilean borrokatu eta Iparraldera erbesteratu ostean, Cométe



sarearekin bat egin zuen eta nazien aurka borrokatu zen Bigarren Mundu Gerran. 1943an, Gestapok preso hartu zuen, eta 1945ean hil zen nazien kontzentrazio-esparruetan pairatutakoen ondorioz. Ekitaldira bertaratu zirenek argitalpen bana hartu zuten Galparsoreen hitzaldiaren edukia jasota. Omenaldian, Alejandroren hiru biloba izan ziren: Isabel, Alberto eta Joaquín Elizalde Arretxea.

5.14 Ertzaintzaren hitzaldia, iruzurak eta lapurretak ekiditeko xedez

Iker Legardon eta **Lander Jauregik**, segurtasunaren aurkako delituen prebentzioan



adituak diren ertzainek, hitzaldia eman dute gaur Sabino Arana Fundazioan Helduak elkarteko kideentzat. Bertan, hainbat gomendio eta autobabeserako oinarritzko aholku eskaini dizkiete bertaratutakoei, maula edo iruzur eta lapurreten biktima izan ez daitezen.

«Osteak eta maulak: segurtasuna etxean» izenburuaren ildotik, Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiari atxikitako agenteek adineko pertsonen

babesgabetasuna helburu duten delitugileen aurrean nola jokatu behar duten azaldu diete, eta lapurrek euren helburua lor dezaten saihesteko aholkuak eman dizkiete.

Besarkada solidarioa, Tokomotxoa edo argiaren edo gasaren konpainiako teknikari faltsuarena egitea ditugu gaizkile horiek biktimei lapurtzeko erabiltzen dituzten maulen adibideetako batzuk.

5.15 Selma Huxley: euskal marinelen aztarnen bila Ternuan

Michael Barkhamek, Cambridgeko Unibertsitateko Geografiako doktore eta Selma Huxley historialari britainiarraren semeak, 2020an zendu zen ikertzaile bikain horren ibilbide apartaz jardun zuen, aurtan, Selma Huxley Bilbora iritsi zeneko 50. urteurrena beteko dela eta. Ikertzaileak ordura arte argitaratu gabeko orrialdea idatzi zuen itsas historiaren liburuan, euskaldunek XVI. mendean Ternuan eta Quebecen finkatutako eskala handiko lehen balea-industria dokumentatu eta kontatu zuela.



5.16 *Agirre Lehendakariarekin Berlingen hitzaldia, Ingo Niebelen eskutik*

Ingo Niebel kazetari eta historialariak zehatz-mehatz arakatu du Lehendakariaren ihesaldia, hainbat artxibotan murgilduta, dokumentazio ezezaguna berreskuratuz eta urratsez urrats jarraituz, ez bakarrik Agirrek bere ihesaldian egindako ibilbidea berrosatuz, ezpada, haren atzetik zihoazenen ibilbidea berrosatuz ere bai. Alderdi horiek guztiak jaso ditu Niebelek “A la

caza del primer Lehendakari. Franco, Hitler y la persecución del primer presidente vasco” (Lehen Lehendakariaren atzetik. Franco, Hitler eta lehenengo euskal lehendakariaren jazarpena) liburuan. Horretaz guztiaz aritu zen maiatzaren 5ean Sabino Arana Fundazioan eskainitako hitzaldian.



5.17 *Gregorio Arrieni omenaldia. Gure herriaren historiaren ikertzaile eta zabaltzaile nekaezina*

Sabino Arana Fundazioak Gregorio Arrien Berrojaetxebarria historialari, euskararen

bultzatzaile eta elizgizon pasiotarrari omenaldia egin zion maiatzaren 18an, Fundazioan. EHUKo irakasle, Hezkuntzaren historiaren ikertzaile eta unibertsitate horretako Hezkuntza Museoko kide **Joxe Garmendiaren** eskutik, irakaslea izandako gizon jakin hori gogorarazi genuen. Arrienek Gerra Zibilean haurren erbesteratze eta ebakuazioei buruzko, Bizkaiko XX. mendeko hezkuntzari buruzko (batik bat, auzo-eskolei buruzko) eta pasiotarren historiari buruzko lan ugari idatzi zituen.



Eta Bizkaiko hezkuntzaren historiari gagozkiola, Arrienen azken liburua, hil ondoren argitaratutakoa, izan zuen hizpide Garmendiak. Auzo-eskolei buruzko lana da, Arrienen tesiaren berrargitalpena.

5.18 *«Pagasarri edo Himalaia: lankidetza ulertzeko bi modu». Zeinetan dago Euskadi?*

Asier Hernandok izenburuko hitzaldia eman zuen, maiatzaren 25ean egindako jardunaldiaren barruan, gaur egun dauden garapenerako lankidetza-motak eta herrialdeek azken urteetan hartu dituzten aukerak aztertzeko.

5.19 «De cierta manera» (Halako moduan) dokumentalaren emanaldia

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzetasunaren Museoak eta KCD (Kultura Communication y Desarrollo) euskal GGKEk, Emakumeek egindako 11. Zinema-jaialdiaren esparruan, **Marilyn Solaya** kubatar aktore, gidolari, zuzendari eta ekoizlea gonbidatu genuen.

Sara Gómez zuzendari kubatarraren «De cierta manera» dokumentala ikusi ostean, Solayarekin hitz egiteko aukera izan genuen, emakumeek gizarte-esparru guztietan leku duina izateko eta nazioa eraikitzeko asmoz Kuban egiten duten etengabeko borrokaren inguruan.



5.20 «ORIXEren oparia: Gregorianoa euskaraz» liburu eta diskoaren aurkezpena

Donosti Ereski abesbatza gregorianistak «Orixeren oparia: Gregorianoa euskaraz liburu eta CDa aurkeztu zituen ekainaren 2an SAFen. Nikolas Ormaetxeak itzulitako euskarazko kantu gregorianoak biltzen ditu liburu. Ekitaldia, bide batez, omenaldia izan zen Orixeren literatura lan itzelari, gregorianoa euskaraz ere kanta daitekeela

erakutsi zuelako.

5.21 «Amaiur. Gaztelu baltza» komikiaren aurkezpena

Nabarralde Fundazioak eta Sabino Arana Fundazioak «AMAIUR. Gaztelu baltza» izeneko komikia aurkeztu zuten ekainaren 15ean, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.

Angel Rekalde Nabarralde Fundazioko zuzendariak eta Amaia Ballesteros irudigile eta komikigileak komiki-formatuan egindako argitalpena da, Amaiurko gazteluaren historia kontatzen duena. Bertan, orain dela 500 urte, Nafarroako Erresumaren independentziaren aldeko azken borroka izan zen.



5.22 «Gure industriaren udazken-neguetako erronkak»

Mikel Irujok, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomiko eta Enpresarietarako kontseilariak, eta **Arantxa Tapiak**, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak, Ukrainaren inbasioak eta ondoko gerrak eta Errusiak Europari gas-hornidura eteteko mehatxuak datozen hilabeteetan eragingo dituen arriskuak aztertzen zirela irailaren 1ean, Altsasuko Iortia kultura-

etxean. Altsasuko alkate **Javier Ollok** moderatzaile jardun zuen Irujo Etxea Elkarteak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako topaldi horretan.



5.23 *Emakumea kirolean*



«Guztiontzako kirola» izenburua daraman hitzaldi-zikloari hasiera emateko saioan, **Ana Urquijo**, Athletic Clubeko presidente ohia, eta **Iraia Iturregi**, talde zuri-gorriko emakumezkoen entrenatzailea, aritu ziren hizlari irailaren 28an. Bi-biak aurrendariak ditugu eta berdintasuneranzko bidean oztopoak gainditu izanaren eredu horren maskulinizaturik dagoen kirolaren esparruan. TeleBilbao telebistako kirol-kazetari eta aurkezle **Eduardo Velascok** koordinatu eta moderatuko du zikloa.

5.24 *Koldo Anasagastiren «CLANDESTINA. Radio Euzkadi, un irrintzi desde Venezuela» liburuaren aurkezpena*

Koldo Anasagastiren Clandestina liburua urriaren 13an aurkeztu zen Sabino Arana Fundazioan. 1965 eta 1977 urteen artean, Franco diktadorearen gezurrei aurka egiteko eta erregimen frankistak kontatu nahi ez zuen guztiaren isiltasunari ahotso jartzeko, Euzkadi irrati klandestinoak emititu zuen Venezuelatik.

Eusko Jaurlaritzako erbesteko lehendakariorde Joseba Rezolak Donibane Lohizunetik bultzatuta eta Jokin Inzak zuzenduta, EGIko (Barrualdeko Euzko Gaztedi) gazte talde-batek bi transmisore, ekipo elektrogeno bat eta erronboide-formako antena erraldoia diseinatu eta instalatu zituen Caracasetik 60



kilometrora, oihanean bertan. Hamabi urte horietan, badaezpadako gailu hori zaintzen eta abian jartzen egon zen Ixaka Atutxa, gudari ohi eta gizon sendo-sendo, Euskal Erresistentziaren ahotsa egunero-egunero munduan hedatzen zuen irratia babesten bere burua eskaini zuena, zeregin horretan bizia galdu behar bazuen ere.

Hori guztia egitea izan zuten ekintza hartan parte hartu izan zutenen adore eta ausardiari esker, Venezuelako gobernuen eskuzabaltasunari esker eta Karibeko herrialde horretako euskal komunitatearen ekarpen ekonomikoari esker.

Diskrezioa zen nagusi. Taldetik kanpoko inork ez zuen jakin behar irratia non zegoen; horregatik, Txalupa izena zerabilten irratiaz ari zirenean, itsaso zabalean zebilen ontzi batean zegoela ikusarazi nahian, eta Macuto deitzen zioten irratia egiatan zegoen leku fisikoari.

«Clandestina» benetako balentria da, nobela eran kontatua. Diktaduraren aurkako erresistentzia-ekintza kontatzen du liburua eta, aldi berean, gezur ofizialen kontrako adierazpen-askatasunaren erakusgarria izan zen, hamabi urtez.

5.26 *Hegemonia, gatazka eta boterearen balantza egungo Ekialde Ertainean*

Alberto Spektorowski politologo uruguaiar-israeldarra, nazioarteko gatazketan aditu eta bitartekaria, Ekialde Ertainean egun gertatzen ari den gatazkaren errealitateaz eta boterearen balantzeaz mintzatzeko hitzaldia eman zuen Fundazioan joan den urriaren 18an.

Estatu Batuak indar hegemoniko gisa Ekialde Ertainetik apurka-apurka baztertu direnetik, ateak zabalik geratu dira orain dela hamarkada bat pentsaezinak ziren itun estrategikoak eratzeko.



Iran gero eta aktiboagoa da lurralde horretan, eta indar atomikoa bilatzeko ahaleginetan tematu da – ahalegin hori ez da eten eta ez da etengo, nahiz eta munduko potentzien artean itunik lortu-. Hori dela eta, Israel hurreratu egin da sunitek gobernatzen dituzten Persiar golko herrialdeetara. Garai batean, palestinarren eta israeldarren arteko gatazkan jartzen genuen arreta, baina orain, eragin-eremua zabaltzen ari da eta Israelek eskualde-mailan finkatu dituen harreman

estrategikoei erreparatu behar diegu, harreman horiek hedatu egin baitira.

Gaur egun, eskualdeko gerra txikia gertatzen ari da, non Israelek, eguneroko eta unean uneko bonbardaketak eginez, zapuztu egin nahi du Iranen estrategia Siriako, Gazako eta Libanoko talde hurbilak armatzeko.

Politika horretan, Egiptoren eta arabiar emirerrien babesak jasotzen du hebrear estatuak, beldur handiagoa diotelako Irani Israeli berari baino. Testuinguru horretan, Palestinako auzi, desagertu ez den arren, bigarren mailan geratu da. Inguruabar horretan, erantzun beharreko galdera hau da: noraino eramango du Israelen Iranen aurkako jazarpena, eta noiz arte eutsiko dio Iranek Israelen etengabeko erasoei erantzunik eman gabe, israeldarrek ez baitute ezkututzen Iran potentzia nuklearra izan dadin eragozteko asmoa.

5.27 *Kirola: gizarte-tresna pandemiaren aurretik, pandemiak iraun bitartean eta pandemiaren ostean*

Urriaren 20an, **Gorka Iturriaga** Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak eta **Gabriel Sáez** GO fit zentroen zuzendari exekutiboak kirolak ematen dizkigun onurei eta aukerei buruz hitz egin zuten, hitzaldi hau eskainita: «Kirola: gizarte-tresna pandemiaren aurretik, pandemiak iraun bitartean eta pandemiaren ostean»

Gizarte-ingurumari berriaren, gizartearen bilakaeraren, pandemiaren eraginen eta abarren ondorioz, kirol-jarduera gero eta hedatuago dago gizartean, baina, egia esatera, oraindik ere baditugu hobetzeko arloak. Zalantzarik gabe, bide luzea egiteko daukagunez, eztabaida- eta hitzaldi-ziklo honen helburua, batetik, hausnarketa bultzatzea da, eta bestetik, kirolaren kulturaren ikuspegitik, gizarte parte-hartzaile eta engaiatua lortzeko hainbat aukera daudela agerian uztea.



5.28 *Paperezko memoria. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren hiru hamarkada*



Sabino Arana Fundazioak Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren XXX. urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekitaldien esparruan, azaroaren 10ean, hitzaldi bat eskaini zen Fundazioaren egoitzan, honako izenburu honen ildoa: «Paperezko memoria. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren hiru

hamarkada»

Sabino Arana Fundazioaren artxibozainek, **Eduardo Jauregik** eta **Luis de Gezalak**, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiari eta haren dokumentu-funtsei buruz hitz egingo dute: historiaz, titulartasunaz, jatorriaz, tamainaz, 1992ko uda hartan, funts guztiak Baionatik Arteara (Arratia) ekartzeko lekualdatzeaz, bai eta norbanakoek urterik urte ematen dituzten dohaintzez ere.

5.29 *Karmele Leizaola, Venezuelako diseinu grafikoaren damandrea*

Amaia Fano kazetari euskal-venezuelarrak Karmele Leizaola (1929-2021) euskal-venezuelar diseinatzaile grafikoaren bizitza eta ibilbide bikaina aletu zuen Sabino Arana Fundazioan, azaroaren 17an. Ibilbide arrakastatsu horri esker, Venezuelako edizio grafikoaren «maistra» eta «damandre» bilakatu zen.

Venezuelara erbesteratutako Donostiako familia txit abertzale eta ospetsu bateko kidea izan zen Karmele. Han, Venezuelen, euskal herritar horrek nazioarteko ospea lortu zuen eta egiazko mitoa izan zen Venezuelako idatzizko hedabideen esparruan.

Karmele Leizaola lehen emakumea izan zen ale-kopuru handiko egunkari baten diseinu grafikoaren saileko zuzendaritza hartzen, kasurako El Nacional egunkariarena, eta 50eko hamarkadaz geroztik, herrialde horretan argitaratu ziren egunkari eta astekari ugariren irudiaren sortzailea, besteak beste, *Momento* aldizkariarena, non kazetaritzako pertsona arras esanguratsuekin lan egin zuen, barbarako, Gabriel García Márquez eta Plinio Apuleyo Mendoza. Era berean, Caracasko Euskal Etxean urte haietan egiten ziren argitalpenen diagramazioan gogotik eta erabateko eskuzabaltasunez parte hartu zuen, hala nola erbesteko euskal erresistentziaren agerkaria zen *Gudari* aldizkarian.



5.30 «La montaña desnuda/Mendi biluzia» film luzearen emanaldia eta hitzaldia Alex Txikon bizkaitar mendizalearekin

Lemoako mendizale Alex Txikonekin batera, azaroaren 22an, Karakorum mendilerroan (Asia) dagoen Nanga Parbat (8.125 m) mendiaren gailurrera iritsi ginen. Izan ere, *La Montaña desnuda/Mendi biluzia* filmaren bidez, 2016ko otsailaren 26an lortutako balentriaz gozatu genuen. Lehen aldia zen espedizio bat neguan haraino heltzen zena. Airetiko irudi ikusgarriez gozatu genuen, baina azken mezua, garrantzitsuena: «gailurra zapaltzen duzu gainerako taldekideekin batera kanpamentu nagusira itzultzen zarenean», adierazi zuen Alexek. Txikonen Nanga Parbateko abentura liburu formatuan ere lor daiteke.



5.31 *Adin guztietan, mendira, Bizkaiko eta Euskadiko mendizale federazioetako mediku Kepa Lizarragaren eskutik*

Gure nagusiak gaur egun gehien kezkatzen dituzten gaiak direla eta, Helduak elkarteak eta Sabino Arana Fundazioak urtero-urtero antolatzen dituzten hitzaldien esparruan, Kepa Lizarraga medikuak mendian finkatu beharreko helburuak eta gure aukerak nola kudeatu azaldu zituen abenduaren 1ean. Hau da, artikulazioen



narriadura edo muga kardiobaskularrak aintzat hartuta, mendian eroso mugitzeko eremuak, materialak eta baldintzak zelan aukeratu.

Soin Hezkuntzako eta Kirol Medikuntzan aditua dela, Kepa Lizarraga Bizkaiko eta Euskadiko mendizale federazioetako medikua da. Lizarragaren iritziz, «mendizaletasuna kirola baino askoz gehiago da eta edozein adinetan egin dezakegu». Ildo horretan, Lizarragak eman dizkigun aholku batzuen esangura honako hau da: «eskarmentu eta ikasbidearen eskutik, mendiaz gozatzen jarrai dezakegu bizitza osoan».

5.32 EABko emakumeen aldeko omenaldi hunkigarria elkartearen sorreraren mendeurrenean

Hirurehun lagunek baino gehiagok omenaldi beroa egin diete gaur Emakume Abertzale Batzako (EAB) kide izan ziren emakumeei, elkartearen sorreraren mendeurrena dela eta, Sabino Arana Fundazioak Bilboko Euskalduna jauregian antolatutako ekitaldian, maiatzaren 7an.

Sabino Arana Fundazioaren presidente **Mireia Zaratek** jardun zuen buru, eta erakundeetako kargudun eta ordezkari politiko ugari izan ziren omenezko saioan, besteak beste, **Andoni Ortuzar** EAJ-PNV alderdiaren EBBko burua; **Bakartxo Tejeria** Eusko Legebiltzarreko presidentea; **Itxaso Atutxa** EAJ-PNV alderdiaren BBBko burua; **Jose Antonio Suso** EAJ-PNV alderdiaren ABBko burua; **Arantxa Tapia**, **Gotzone Sagardui**, **Olatz Garamendi** eta **Bingen Zupiria** sailburuak.



Emakume Abertzale Batza osatu zuten emakume haietako batzuen hiru senidek egin duten solasaldia biziki hunkigarria izan zen, oroitzapenez eta pasadizoz betetakoa. **Nagore Garamendik** (Alicia Aretxabaletaren biloba), **Begoña Agirre Oarrek** (Maria Oarren alaba) eta **Tegi Urzelaik** (Julene Urzelaireren iloba) parte hartu zuten saioan.

1922ko maiatzaren 7an sortu zela, EAB emakumeek osaturiko lehen erakunde politiko abertzalea izan zen estatuan eta Euskadin inoiz izan den emakumeen mugimendu eraginkor eta indartsuena.

5.33 *EABk 100 urte. Emakumeak Aberria eginez erakusketaren inaugurazio-ekitaldia Donostiako Aiete kultura-etxean*

«EABk 100 urte. Emakumeak Aberria eginez» izeneko erakusketa inauguratu zen Donostiako Aiete kultura-etxean. Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatu du erakusketa, euskal emakume abertzaleen erakunde honen sorreraren mendeurrenaren kariaz.

Duela 100 urte, ekimen ugari bultzatu eta hamaika zereginetan aritu zirela, gizarte-eredu berri baten aldeko apustua egin zuten emakumeek Euskadiren alde gauzatutako jarduerak eta haien bizipenak gaurko egunotara ekarri nahi ditu erakusketak.

UPV/EHUko irakasle **Karmele Perez Urraza**, **Begoña Bilbao Bilbao** eta **Gurutze Ezkurdia Arteaga** komisarioek taxuturiko erakusketa hori beira-arasez eta 24 panelez osatuta dago, gaikako sei multzo handitan banatuta. Multzo horietan, elkarteak bere ibilbide historiko osoan egindako lana eta pentsamoldea jasota daude: 1) EABren sorrera 2) EABren loraldia; 3) Jaungoikoa eta lege zaharra (JEL) doktrina; 4) EAB eta hezkuntza; 5) EAB eta gizarte-laguntza eta 6) EAB gerran eta erbestean.



5.34 *Memoria lantzeko Kultura. Martxoak 24, Egiaren eta Justiziaren aldeko Memoriaren Nazio Eguna Argentinan*

Urtero-urtero, martxoaren 24an, Egiaren eta Justiziaren aldeko Memoriaren Nazio Eguna ospatzen da Argentinan, 1976ko martxoaren 24tik 1983ko abenduaren 10era arte iraun zuen azken diktadura militarren biktimak oroitzeko. Ospakizun horren bidez, argentinarrak memoria eta kontzientzia kolektiboa sortu nahi dute, giza eskubideen urraketak eta estatu-kolpeak berriro gerta ez daitezen.

Ekitaldia Bilboko Campos Eliseos antzokian izan zen eta ondokoek parte hartu zuten: Estela Barnes de Carlotto, Maiatzeko Plazako Amonen elkarteko burua; Ignacio Montoya Carlotto musikagile eta piano-jotzailea (berreskuratutako 114. iloba); eta Marta Betoldi eta Laura Azcurra aktoreak, *Contracciones (Uzkurdurak)* antzezlan eskainita.



6.1 «2030eko euskaldun eleaniztuna»

Helburua: euskararen inguruko diskurtsoak berritzea, aldeko mezuak erabiliz eta belaunaldi berriei begira

Euskaltzaindiarekin lankidetzan, uztailaren 20an, 2030eko euskaldunen ezaugarriez eta hiztun-elkartearen etorkizunaz hausnartzeko mintegia egin genuen.



Ondoko hizlariak parte hartu zuten mintegian: **Xabier Barandiaran**, Soziologiako doktorea eta unibertsitateko irakaslea (*Egoera eta prospektiba: 2030eko euskaldun eleaniztuna*); **Bingen Zupiria**, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (*Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-erronka nagusiak*); **Jokin Bildarratz**, Hezkuntza sailburua (*Hezkuntza politikaren aurreikuspenak euskal eleaniztasunaz*); eta **Elixabete Larrinaga**, Politika eta Administrazio Zientzietako doktorea eta unibertsitateko irakaslea (*Gizarte-ekintza euskaldunaren lehentasunak*).

6.2 Euskararen Legeak 40 urte

EUSKARAREN LEGEAK 40 URTE izenburuaren ildoan, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu zuten abenduaren euskal kulturgintzako, erakunde publikoetako eta unibertsitate-arloko ordezkarien eskutik, besteak beste, Euskararen Legeak ekarri duena, erdietsitako aurrerapenak eta etorkizuneko erronkak aztertze helburuz.

Jardunaldian, ondokoek parte hartu zuten: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu **Bingen Zupiria**; **Andres Urrutia** euskaltzainburua; **Mireia Zarate**, Sabino Arana Fundazioaren presidentea; **Juanjo Álvarez**, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna; abokatu eta euskaltzain urgazle **Elixabete Piñol**; **Gotzon Lobera**, traduzinpeko itzultzaile eta euskaltzain urgazlea; **Eba Gaminde**, Zuzenbideko doktorea, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta euskaltzain urgazlea; Nafarroako Parlamentuko presidente **Unai Hualde**; **Eneritz Zabaleta**, Zuzenbideko doktore eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko (UPPA) irakaslea eta **Sagrario Aleman**, Sustapen Batzordeko buru eta euskaltzain osoa.



Tailer didaktikoak

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. BILBO ERAIKITZEN

CONSTRUYENDO EL FUTURO. CONSTRUYENDO BILBAO

Tailer honek Bilboko iragana eta oraina ezagutzea du helburu, atzoko eta gaurko irudiak baliatuz. Horretarako, antzinako eta egungo argazkiak, koloreztatzeko margoak eta kartoizko oinarri bat erabiltzen ditugu; gero, muntaia egiten dugu hiru dimentsioko efektua lortzeko.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: KOLORE HIPERKONEKTATUAK

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: COLORES HIPERCONECTADOS

Tailer honen bitartez, kolorearen izaera abstraktu eta esperimentalena lantzen dugu.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA:

KOLORE HIPERKONEKTATUAK SUZIRIAK

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN:

COLORES HIPERCONECTADOS *FUEGOS ARTIFICIALES*

Tailer honen bidez, kolorearen alderdi abstraktu eta esperimentalena landuko dugu. Tenperak eta lastoak erabiliko ditugu eta magia betetako orri-markatzailea sortuko dugu, non koloreak su artifizialak balira bezala hiperkonektatzen diren.

MENDE BERRIKO ESKOLA. KULTURARTEKOTASUNA: TAUMATROPOAK

LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD: TAUMATROPOS

Tailer honen helburua da umeei zinemaren oinarritzko hastapenak erakustea, jolas-ildoko jarduera sortzaile bat erabiliz. Izan ere, jostailu optiko horrek mugimenduan dagoen irudia lantzen du.

MENDE BERRIKO ESKOLA. KULTURARTEKOTASUNA:

GURE IKURRAK: LAUBURUA- SERIGRAFIA TAILERRA

LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD:

NUESTROS SIMBOLOS *LAUBURU-TALLER DE SERIGRAFIA*

Tailer honen bidez, ikasleek serigrafiaren teknika artistikoa ikasiko dute, etxean erraz eta ekipamendu handirik erabili beharrik gabe praktikan jar daitekeen artea.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: ARBOGLIFOAK

HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: ARBOGLIFOS

Tailer honen bidez, euskal artzainek munduko bazter askotara egindako migrazioaz jarduten dugu, batez ere, Amerikara egindako migrazioaz, eta arboglifoak zer diren azaltzen diegu.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: BILBOKO LAUZA

HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: LA BALDOSA DE BILBAO

Bilboko ikur ezagun eta maitagarrienetako bat LAUZA ospetsua da. Tailer honen bidez, umeez pixka bat gehiago ezagutuko dute lauzaren historia, haren diseinuaren zergatia, noiztik dagoen hiribildua... eta beste gauza asko!

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: "GUERNICA" PABLO PICASSO

HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: "GUERNICA" PABLO PICASSO

Tailer honen bidez, euskal historia landuko dugu, eta hurbilago ezagutuko dugu gure historiarekin harreman estuena duen nazioarteko artista ospetsuenetako bat, Pablo Picasso eta bere "Guernica".

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: GURE IKURRAK: IKURRINA

HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: NUESTROS SÍMBOLOS: LA IKURRIÑA

Tailer honetan, artearen bidez lantzen dugu euskal sinbologia. Hainbat material birziklatuz, gure ikur esanguratsu batzuk itxuratuko ditugu, esaterako ikurrina.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: LIBURU GALDUAREN BILA

HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: EN BUSCA DEL LIBRO PERDIDO

NOR GARA GU? erakusketak gure kulturaren, gure hizkuntzaren, mundua ikusteko dugun moduaren, gure egungo gizartearen sorkuntzan emakumeak duen garrantziaren, gure sinbologiaren, hau da, gure sustraian barrena egindako ibilbide zirrargarriaren zatiak erakutsi nahi ditugu.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: KAMERA ESTENOPEIKOA

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: CÁMARA ESTENOPEICA

Tailer honetan, ohiko argazki-kameren printzipioak garatzen ditugu, kartoizko kutxa soil batetik abiatuta argazki-kamera bat eraikitzeke.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: K. ESTENOPEIKOA ETA ERREBELATUA

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: C. ESTENOPEICA Y REVELADO

Gaur egun, gure neska-mutikoez argazkilaritza digitala baino ez dute ezagutzen eta, beraz, tailer honen bidez argazkigintzaren eta bere historiaren munduan murgiltzea nahi dugu.

Tailerra bi zatitan banatuta dago: lehenengoan, euren kamera eraikiko dute, kamera estenopeiko bat, antzina egiten zirenak bezalakoa; eta bigarrean, argazkiak egingo

dituzte sortuta kameraren bidez, eta azkenik, kamera horrekin ateratako argazkiak errebelatuko dituzte.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: TXIMISTARGAZKIA **ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: RAYOGRAMA**

Tailer honen bidez, argazkigintza lantzen dugu oso ohikoa ez den ikuspegi batetik, argazkiak egiteko teknika guztiz desberdina baita; izan ere, irudiak lortzen dira argazki-kamerarik gabe.



GABONETAKO TAILERRAK

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. GABONETAKO ZORION-TXARTELA *STOP MOTION* **CONSTRUYENDO EL FUTURO. FELICITACIÓN NAVIDEÑA *STOP MOTION***

Tailer honen bidez, Gabonetako txartel bitxia egingo dugu.

Stop Motion teknika landuko dugu. Teknika zinematografiko bat da, pertsonaia/objektu bat animatzean datzana, irudiz irudi, mugimendu txikien argazkiak atera, eta gero denak batuta mugimendu-segida bat sortuta.

Fotogramaz fotogramako animazioa sortuko dugu. Gabonetako objekturik bereizgarrienari, zuhaitzari, bizia emango diogu eta apaingarriak sortuko ditugu animazio polit hori edertzeko.

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. GABONETAKO ZORION-TXARTELA *PIKA PIKA* **CONSTRUYENDO EL FUTURO. FELICITACIÓN NAVIDEÑA *PIKA PIKA***

Tailer honen helburua Eguberria zoriontzeko txartela sortzea da, Pika Pika animazio-teknika erabiliz.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: GABONETAKO ARBOGLIFOAK **HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: ARBOGLIFOS NAVIDEÑOS**

Tailer honen bidez, euskal artzainek munduko bazter askotara egindako migrazioaz jarduten dugu, batez ere, Amerikara egindako migrazioaz, eta arboglifyoak zer diren azaltzen diegu. Geroago, zuhaitz baten adar-zatiak (zurezko diskoak) emanda, Gabonetako apaingarri ederra lantzen dugu.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: ELUR PANPINA- ARBOGLIFOAK **HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: MUÑECO DE NIEVE - ARBOGLIFOS**

Tailer honen bidez, ikasleek euskal artzainen migrazioaz ikasiko dute, batik bat, Ameriketara egindako migrazioaz, eta arboglifyoak zer diren irakastiko diegu (euskal artzainek Amerikako Estatu Batuetako zuhaitzetan egiten zituzten grabatuak), gure

historiaren atal bilakatu direlako. Geroago, gaiarekin bat etorriz, zuhaitz-xaflak erabiliz (zurezko diskoak), halako bi elkartuta, elur-panpina egingo dugu Gabonetako arbolan zintzilikatzeko.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO:
OLENTZERO MARIDOMINGI, ELUR BOLEKIN
HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR:
BOLA DE NIEVE OLENTZERO MARIDOMINGI

Tailer honetan euskal Gabonetako pertsonaia txeratsuenak landuko ditugu: Olentzero eta Maridomingi.

Tailer honen helburua sormena eta banakako eskulana garatzea da, Gabonetako bola apaingarri polit bat sortzeko.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: GABONETAKO TXIMISTARGAZKIA
ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: RAYOGRAMA NAVIDEÑO

Tailer honek gaur egun ahaztuta dagoen argazkilaritza analogikoaren garaira eramango gaitu, argazkiak egiteko modu digitala bakarrik ezagutzen duten gazteei erakusteko.

Hala, neska-mutilak argazkilaritza analogikoaren munduan murgilduko ditugu, tximistargazkiaren teknika ezagututa.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA:
GABONETAKO KOLORE HIPERKONEKTATUAK
ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN:
COLORES HIPERCONECTADOS NAVIDEÑOS

Tailer honetan, kolorearen alderdirik abstraktuen eta esperimentalena landuko dugu. Hala, hainbat gai erabiliko ditugu erliebeko marrazkia egiteko, baita gatza eta tenperak ere, koloreak berez hiperkonektatzeko eta magia beteriko Gabonetako arbola sortzeko.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA:
GABONETAKO APAINGARRIAK HAMA BEADS ERABILIZ
ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN:
ADORNOS NAVIDEÑOS CON HAMA BEADS

Tailer honetan Gabonetako apaingarriak egingo ditugu irudiak sortuz Hama Beads direlakoak erabiliz. Plastikozko pieza txikiak dira horiek, kolore ezberdinetakoak, eta hainbat irudi osatu ahal izango dituzte forma eta tamaina emanez, baita hiru dimentsioko objektuak ere.

Aurrekoez gain, aurten, 2022an, unibertsitate-arloan dihardutenentzako jarduera didaktikoak sortu ditugu, *masterclass* batzuen bidez. Leioako campuseko EHUko Arte Ederren Fakultateko ehun ikaslek baino gehiagok hartu dute parte ikastarootan:

Hitzaldiak eta mintegiak

MASTERCLASS: KARTOIZKO NILGARRIAK

Unibertsitateko ikasleentzako jarduera. Masterclass honen bidez, kontu zehatz bati ekin nahi izan diogu museotik: nola egin berariazko bilgarriak baliabide gutxi erabiliz? Nola garatu eta nola sortu bilgarri espezifikoak gure bildumako objektu jakin batzuetarako? Parte hartutakoek kutxak, karpetak eta garraiatzeko enbalajeak egiten ikasi zuten, kartoia oinarri hartuta, azidorik gabeko xaflak erabiliz.

MASTERCLASS: EHUNAK KONTSERBATZEKO EUSKARRIAK, PROZEDURAK ETA MATERIALAK

Unibertsitateko ikasleentzako jarduera. Gure esperientziak eta gai zail horrekin aurkitu ditugun zailtasunak kontuan hartuta, kontserbazioaren ikuspegitik nahiz euskarri espezifikoetan biltegiratzeko zailtasunagatik, eskola praktikoko bat egin genuen material horiek sorrarazten dituzten arazoak konpontzen saiatzeko.

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK

Pandemiaren aldiko eta konfinamenduan emandako bi urte gogorrenak (2020 eta 2021) igaro ostean, 2022an lehengora itzuli gara agiritegiko lanetan, behar bezala instalatzeko eta jagoteko dokumentazioa jasotzeari dagokionez eta amaitu berri den ekitaldian agiritegira jatorrizko funtsak kontsultatzera etorri diren ikertzaileen antolaketa-, deskribapen- eta zerbitzu-lanei dagokienez.

2020an, hasierako etxeratze-aginduez batera hasi ziren ekimenei heldu diegu ordutik, eta informazioaren eta/edo dokumentazioaren erabilera Internet bidez eta gure webgunean pixkanaka-pixkanaka hazi egin da: dokumentuak, argazkiak, bideoak, albisteak, efemerideak...

Iaz egin genuen bezala, ekitaldi honetan ere, duela 30 urtetik gora zaintzen dugun dokumentu-funts handia berrikusten eta zuzentzen jarraitu dugu. Eta Bilboko zein Arteako espazioak berrantolatzen jarraitu dugu, funtsak berrinstalatzeko eta etorkizunerako metro linealak irabazten.

Bestalde, azpimarratzekoa da 2022an Fundazioak etengabe jardun duela mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, liburuen aurkezpenak edo filmen proiektzioak antolatzen eta egiten; esaterako, Fundazioko kide guztien laguntza eta dedikazio handiagoa behar izan da.

I. AGIRITEGIAREN KUDEAKETA

A) AGIRITEGIA

2022an, honako dokumentazio hau antolatu da (sailkapena, deskribapena eta instalazioa):

- a. EAJ-PNV alderdiaren Araba Buru Batzarraren agiritegia. Bigarren aldia, honako sail hauen antolamendua, instalazioa eta erregistroa (deskribapena) barne:
 - Eskualde/Lurralde Batzarraren aktak, 1977-1984 eta 1987-2015
 - Arabako EAJ-PNVren Lurralde Batzordeko aktak (ABB), 1990-1999
 - ABBko saioen espedienteak, 1992-2011
 - ABko hainbat batzordetako aktak, 1988-1994
 - Aztergaien zerrendak, 1992-1996

- Irteerako gutuneria, 1976-1983 eta 1988-2014
 - Sarrerako gutuneria, 1977-1996 eta 1988-2014
 - Udal batzarrekiko harremanak (batzarrak eratzea, errentamenduak, bilerak, gutuneria). 1976-2003
 - Erakundeekiko harremanak (Udala, AFA, EJ, BBNN), 1977-1998
 - Dokumentazioa, 1989-2023
- b. Bermeoko EAJ-PNVren Udal Batzarraren agiritegia (lehenengo aldia): honako dokumentu-sail hauek erregistratuz:
- Udal batzarra, aktak, 1995-1999
 - Udal batzarra, aktak, 1984-2004
 - Udal Auzitegia, 1996 eta 2001 dok.
 - Sarrerako korrespondentzia, 1998-1999
 - Irteerako korrespondentzia, 1998-2011
- c. Urkabustaiz/Izarrako (Araba) EAJ-PNVren antolakunde jeltzalearen agiritegia.
- d. Frankismoak errepresaliatu zuen Juan Castaños Iturbe gudari arabarraren artxiboa.
- e. Carlos Linazasoro *Altzeta* funtsa, Gipuzkoa 1931-1937 (propagandista)
- f. Ia ehun fitxaren erregistroa, norbanakoen dohaintzetatik eratorritako beste funts eta dokumentu-bilduma historiko batzuen deskribapena eginda, hala nola Roman Berriozabal, Iñaki Anasagasti, Tomás Guzman edo Jose Manuel Etxanizenak, besteak beste.

Aipatu behar da, halaber, Artxiboko eguneroko jarduerarekin batera, 2022an Historia graduko bi (2) gaztek egindako lana prestatu, zuzendu eta gainbegiratu dugula, EHUk Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan ematen duen laneratzeko bekaren (360 ordu) onuradun baitira.

B) LIBURUTEGIKO FUNTSAK

Aurten **263 obra berri** sartu dira Liburutegian. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko Liburutegia osatzen duten monografiak **35.374** dira gaur egun. Hala ere, kopuru horri Arteako urrutiko biltegian dauden 4.000 ale gehitu behar dizkiogu.

Duela urte batzuetatik egiten ari garen moduan, Bilboko gordailuan ale bakarria gordetzen da lan bakoitzaren edizio bakoitzeko, baldin eta gaia eta edukia bat

badatoz gure liburutegi espezializatuan ezarritako irizpideekin. Gainerako monografiak Arteako urruneko liburutegira eramaten dira (balioa kontserbazioagatik, bikoiztasuna gorabehera) edo beste helmuga batzuetara bideratzen dira.

Ekitaldi honetan, kopuruari erreparaturik, Xabier Linazasororen eta EAJ-PNV alderdiaren Araba Buru Batzarraren dohaintzetatik datozen liburuak nabarmendu dira.

Arestian aipatu bezala, atal honetan Arteako urruneko liburutegia birsailkatzeko lanak aipatu beharko lirateke (balorazioa eta banaketa/kokapen berria, kasuen arabera); hurrengo hilabeteetan amaituko dira.

C) «Uzturre» HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu dugu. Aleak banan-banan sailkatu, ordenatu eta egiaztatze lanak egin ondoren, errepikatuta dauden ala ez jakiteko. Hala, **14** titulu berri gehitu dira Hemerotekan 2022an. «Uzturre» hemerotekak, 500 metro linealetik gorako biltegia duenak, orain arte **7.406 titulu ezberdin** ditu eta **184.300** ale bilduta.

Bestalde, «Hustuketa» datu-basea (informazio historikoa duten artikulak, hainbat argitalpenetan argitaratuak –*Euzkadi, Alderdi, Hermes, Bizkaitarra, Deia, Euzko Deya...*) dagoeneko **14.725** erregistrora iritsi da.

II. KONTSULTAK

2022an, **228** informazio-eskaera jaso dira Abertzaletasunaren Agiritegian, aurreko ekitaldiren ildo beretik (hau da, kontsulta gehienak posta elektronikoz (117) eta telefonoz (60) egin dira, aretoan zuzenean (25) edo gure web-orrian dauden inprimakiak erabiliz (26)).

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiartekoei, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan dezagun (urtero adierazten dugun moduan) informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien –ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira ikertzaileei eskainitako oroitza-txostenaren azken atalean.

Ikergaien zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

Horra hor 2022an jasotako kontsulten banakaketa:

JASOTAKO KONTSULTEN BANAKAKETA		
Unibertsitatea / Ikerkuntza: 90	Norbanakoak: 84	Gizarte- eta Kultura- erakundeak / Euskal Administrazio Publikoa: 27
PNV / SAF: 19	Hedabideak / Enpresak / Ekoiztetxeak: 8	

1992ko urritik hona, **7.123** kontsulta jaso dira guztira agiritegian.

III. HISTORIA ETA DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA

Lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpenen kontrola, ikerketa-lanen koordinazioa...

DEIA: urte osoan, asteroko artikulak Historias vascas sailean argitaratzeko, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegitik koordinatua 2009tik.

DATA	EKITALDIA	PARTAIDEA(K)
2022/03/01	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: <i>Matxitxakoko guda</i>	Gezala, Luis de
2022/03/16	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: <i>Leizaolaren bidaia 1974an</i>	Gezala, Luis de
2022/04/05	Elkarrizketa Bizkaia Irratian: <i>Matxitxakoko guda</i>	Goiogana, Iñaki
2022/04/26	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: <i>Gernikako bonbardaketa</i>	Gezala, Luis de
2022/06/17	Matxitxakoko gudari buruzko hitzaldia Arrantza Museoa (Bermeo)	Goiogana, Iñaki
2022/09/18	Omenaldia Zirardamendi-Elgoibarren hildako gudariei	Goiogana, Iñaki
2022/10/05	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: <i>Eusko Jaurlaritza</i>	Gezala, Luis de
2022/10/11	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: <i>Eusko Jaurlaritzak gerran askatutako emakume eskuindar presoak</i>	Gezala, Luis de
2022/10/19	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: <i>Ikurrina</i>	Gezala, Luis de
2022/10/26	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren 30. urteurrenaren kariaz antolatutako mintegia	Jauregi, Eduardo
2022/10/27	Hitzaldia Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren 30. urteurrenaren kariaz antolatutako mintegian	Goiogana, Iñaki
2022/10/27	Parte-hartzea Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren 30. urteurrenaren kariaz antolatutako mintegian	Gezala, Luis de

2022/10/27	Parte-hartzea Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren 30. urteurrenaren kariaz antolatutako mintegian	Jauregi, Eduardo
2022/11/09	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren 30. urteurrenaren kariaz antolatutako mintegian 10ean emango duen hitzaldia	Gezala, Luis de
2022/11/10	Hitzaldia Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren 30. Urteurreneko mintegian	Gezala, Luis de
2022/11/10	Hitzaldia Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren 30. Urteurreneko mintegian	Jauregi, Eduardo
2022/11/23	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: <i>Sabino Aranaren heriotza</i>	Gezala, Luis de
26/11/2022	Omenaldia Bittori Etxeberriari Baztanen	Goigana, Iñaki
2022/12/02	Asistencia en Seminario "La participación italiana en la guerra civil española", en Gernika	Goigana, Iñaki
2022/12/07	Elkarrizketa Onda Vasca irratian: <i>Euzkadi egunkaria Bartzelonan</i>	Gezala, Luis de

IV. AGIRIEN DOHAINTZAK

2022an, 27 pertsonak eta/edo erakundek bat egin dute Abertzaletasunaren Agiritegiarekin dokumentazioa emanda. Kopuru horretatik, 14 emaile berriak izan dira aipaturiko ekitaldian.

Orain arte, guztira **1.586** dohaintza jaso dira Agiritegian

V. IKERTZAILEAK

2022an, **48 ikertzailek** kontsultatu dituzte gure dokumentu-funtsak aretoan (iaz baino % 25 gehiagok).

Ikergaiak honako hauek izan dira:

IKERGAIAK
Alberto Abos Bidaña, aitaren historia
Euzko Alderdi Jeltzalea Barakaldon, 1923an
Galdakaoko Memoria Historikoa
Ángel de Agirretxe eta María Teresa Larruzea
Nazien arma negozioak
Pedro Loizate Lazpita
Rodolfo Benito (PNV)

Francisco Carlos Bastida García, San Andres batailoiko gudaria

Emakume Abertzale Batza

Leioako EAJ-PNVren historia

Julio Baqueriza

Ricardo González Huidobro, La Roseraien hildakoa

Euskal haurren erbestea

Euskal haurren erbestea

Eustaquio Conde Agirre

Ignacio Rotaetxe Velasco

Marino eta Celestino Elejoste Astarbe

Mercedes Kareaga Gisasola

San Kristobal gotorlekutik ihes egitea 1938an

Vicente de Viteri / Bingen Biteri

Abadiño / Abadiano

Sabino Arana Goiri

Burdin Gerrikoa (Gamiz-Fika)

ETAren eta euskal diasporaren arteko harremana

Espainiako gerra zibila, futbol jokalarien bizitzaren bidez kontatua

Euskal kirola (1930 eta 1936 bitartean, euskal abertzaletasunari lotutako kirol-elementuak))

Euskal Herria, erregionalismotik separatismora, 1975-2011

Ramiro Altonaga eta Ramón Intxausti (gudariak)

Trantsizio eta sendotze demokratikoa Espainian 1975etik

José Lekaroz Goñi

Euskal margolariak Argentinan (kontsulta EGIN funtsan)

Gernikako gerrako presoen ospitale militarra (1938-1940)

Hirugarren Karlistaldia

Estatutik gabeko nazionalismoa eta Europako integrazioa

Asunción Candina Aguirremota

Candido Saseta

Mendigoizaleak

Josep Dencas i Puigdollers

Jose Ignacio Lizaso eta Londresko Euskal Ordezkaritza

Julia Gabilondo Maite, euskarazko idazlea (Euzkadi, Aberri, Eguna, etab.)

Gerra zibilean Ingalaterrara ebakutatutako haur euskaldunak

VI. INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA: WEBGUNEA – SARE SOZIALAK

- Sabino Arana Fundazioaren webgunean dagoen datu-basea aldian behin eguneratzea, gure dokumentu-funtsen artean biltzen ditugun liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioarekin.
- Efemerideak sare sozialetarako (Facebook, Instagram eta Twitter)
- Mezu@buletin elektronikoa bidaltzea, urtero egiten ditugun jardueren berri emateko Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Ekitaldiak streaming bidez zuzenean zabaltzea; gure egoitzako Lehendakari Agirre aretoan egiten diren jardueren bideo-grabazioak biltegitratzea (hitzaldiak, mintegiak, liburuen aurkezpenak, etab.) eta ondoren Internetera igotzea, gure webgunetik edo YouTubeko profiletik askatasunez ikusteko.

1. Urteko balantzea

2022ko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoa *Emakume Abertzale Batzaren* sorreraren mendeurrena gogora ekartzeko ekitaldietan buru-belarri aritu da. Horren haritik, argazki-funts garrantzitsua katalogatu da, elkarte horren omenaldia antolatu da, eta *Emakumeak Aberria Eginez* erakusketa sortu da. Erakusketa horrek QR kodeak dakartza paneletan, eta horien bidez, informazio gehiago eta paneletako testuak frantsesez ere eskaintzen ditu. Horrez gain, txosten bat egin da, eta aldi baterako erakusketen atalean gehitu da.

Museoko materiala biltegi berri batera ere eraman dugu, eta birkatalogatze-lanari ekin diogu, 2023an egingo dugun legez.

Museoaren funtsak katalogatzen eta sarrera berriak inbentarioan jasotzen jarraitu dugu, aurten jaso ditugun dohaintza berriak direla eta.

Aurreko urteetan bezala, gure funtsen prebentziozko kontserbazioa egin dugu, zaharberritze batzuk eta pieza nabarmenen gaineko esku-hartze batzuk ere bai, lehengo egoera hobetzeko.

Bestalde, tailer didaktiko berriak antolatu ditugu, gure eskaintza zabaltzearren, Gabonetako tailer berariazkoak landu ditugu eta Museoen Eguna ospatzeko ere tailer berezia antolatu dugu. Eskaintza didaktiko horri loturik, bi *escape room* sortzen ari gara, horietako bat ikurrinari buruzkoa eta bestea Alava sareari buruzkoa.

Era berean, hainbat adin-tartetako hartzailleentzako jarduerak ugaritu ditugu, eta hitzaldiak, dokumentalen proiektzioak eta abar eskaini dizkiegu.

Beste erakunde batzuen hainbat erakusketatan parte hartu dugu, gure funtsen zati bat lagata, eta geuk sorturiko erakusketak han-hemenka antolatzen ibili gara, hitzaldiz hornituz.

Aurten, Arte Ederretako, Gizarte Zientzietako eta Komunikazioko fakultateetako hamar ikasle izan ditugu praktiketan, bai eta EHUKo Letren Fakultatekoak ere, Leioako campusekoak zein Gasteizko campusekoak, eta Museoaren eguneroko jardueratik sortutako katalogazio-lanak eta eguneroko lanak egin ditugu.

Aurten ere Arte Ederren Fakultateko 'Agiri Kulturala'-ren programari eutsi diogu. 'Agiri' horrek aukera ematen du ikasleek jasotako edo parte hartutako ekimen guztiak

(erakusketak, tailerrak, mintegiak, hitzaldiak, deialdiak...) pasaporte moduko batean agertzeko, eta hala, prestakuntza handitzen dieten estimuluak, esperientziak eta ezagutzak barneratzen dituzte. Gainera, harreman zuzena dute lan-munduarekin, hainbat esparrutan. Horrela, urte akademikoa amaitzean, ikasle bakoitzaren curriculum osagarria islatzen duten ziurtagiriak ematen dira, ikasle bakoitzak dagokion graduoko edo graduondoko ikasketak egiten dituen bitartean, curriculumetik kanpoko prestakuntza pertsonalizatua eratu ahal izateko.

Unibertsitatearen esparruan, gure jardueren publizitatea EHUko fakultateek ikasleekin eta ikasle ohiekin dituzten kanalen bidez zabaltzea lortu dugu; horrela, gure eskaintza zuzenean iristen zaie balizko interesdunei.

Aurten, praktikak gurean egin dituen ikasle batek museoan gordeta dagoen Javier Ciga margolariaren margolan baten gainean egin du gradu amaierako lana.

Sabino Arana Fundazioaren sare sozialetan zabaldu den informazioaren irudi osagarriak hornitu ditugu, baita Fundazioan egin eta Flickr-en kargatu diren ekitaldietako argazkiak ere, parte-hartzaile edo protagonista bakoitzak irudiak banaka eta modu seguruan eskuratu ahal izan ditzan. Eta gure argazki-funtsa baliatu dugu DEIA egunkariak argitaratzen duen *Historias vascas* saila irudiztatzeko.

2022an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Museoen Zerbitzuaren bitartez, programa bat jarri zuen abian, Euskadiko museo-erakundeetan gordeta dauden objektuak hiru dimentsiotan eskaneatzeko teknologia erabiliz ezagutzera emateko. Programa horren helburua izan zen, besteak beste, museoetan teknologia berrien erabilera bultzatzea eta Euskadiko museo-ondarearen hedapena eta irisgarritasuna hobetzea. Proiektu moderno horretan parte hartu dugu, eta gure funtsetako 14 pieza digitalizatu ditugu.

2. Katalogazioa

Aurreko urteetan bezala, UPV/EHUko Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren eta Arte Ederren fakultateetako ikasleak izan ditugu gurean. Azkenei dagokienez, Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Graduoko eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean fundazioan. Horiek guztiek Eusko Jaurlaritzak 3. eta 4. mailako ikasleentzat ematen dituen laneratzeko bekei esker aritu dira museoan. 2022an, hiru bekadunek jardun dute urritik abendura, horietako bakoitzak 360 orduko arduraldia bete duela.

Azkenik, behean ageri diren funtsak antolatzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen jarraitu dugu lanean:

Argazki-funtsa. 2021ean jasotako 2.200 argazki baino gehiago erregistratu, katalogatu eta “Sabino Arana Fundazioa” deritzon moldea txertatu diegu irudioi:

- Norbanakoek egindako dohaintzen funtsetan gordetako argazkiak erregistratzea, katalogatzea, digitalizatzea eta irudioi moldea txertatzea.
- Erregistratutako irudien deskribapen fisikoa egitea eta kontrastea hobetzea.
- Identifikatzaile, egungo egoera, kopien kopuru eta beste ezaugarri batzuk inbentarioan jasotzea.
- Irudiak indexatzea, zeini dagokion testu-fitxaren arabera.
- Tamaina, egungo egoera eta abarren arabera, irudiak euskarri egokietan jartzea, argazki-albumetan gordeta eta hainbat tamainatako zorroetan –pH neutrodunak eta argazkiari egokitutakoak– sartuta.

Arte grafikoak. Kartel eta eranskailuen atala. Eranskailuen atalean jasotako 1.000 ale baino gehiagoren inbentarioa lantzen jarraitu dugu, eta, argazki digitalak eginez, horiek guztiak erregistratu ditugu.

Atal honetan, Arte Ederren Fakultateko Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Graduko ikasleek eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean, praktikaldian. Guztira, 1.230 erregistrotik gora jaso dituzte inbentarioan aipatutako ikasleok eta euron kontserbazio-egoera ebaluatu dute.

Dekorazio-arteak. 200 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederren Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira, eta ale batzuen garbiketa berezia egin dute.

Pinakoteka. Museoan aurten jaso ditugun pieza berriak katalogatu eta instalatu dira. Arte Ederretako Fakultateko praktiketako ikasleek egin dute lan hori.

Museoan gordeta dagoen Javier Ciga margolariaren lanetako bat erabili du gaitzat gurekin praktikak egin dituen ikasle batek gradu amaierako lana aurkezteko.

Ehun-funtsa. Aurten, ehunezko materialaren azterketa xehatua egiten jarraitu dugu, batik bat, planoena eta hagetan eskegita dauzkagun materialena. Gainera, 2022ko ekitaldiaren barruan, gure erakundera heldu diren ale berriak aztertu, inbentarioan jaso eta katalogatu dira

Prebentziozko kontserbazioa. Atal honetan, pH neutroko materialak erabiliz bilgarri espezifikoa sortu dugu pieza batzuentzat.

Gaur egun, 2021ean jasotako dohaintzak dagozkien euskarrietan inbentariatzen eta instalatzen jarraitzen dugu. Ildo horretan, funts desberdinetarako berreskuratutako materialak nabarmendu behar dira: argazkigintza, ehungintza, arte grafikoak, dekorazio-arteak eta abar.

3. Zaharberritzeak

2022an, zeregin hauek gauzatu dira:

1. Urtean museora iritsi diren pieza guztiak identifikatzea eta erreserban kokatzea.

- Inbentario orokorrean alta eman ondoren, fitxa teknikoa bete da.
- Pieza guztietan, erregistro-zenbakia identifikatzen duen etiketa jarri da.
- Kontserbazio-egoera aztertu da.
- Museoaren gela edo aretoetan kokatu dira.

2. Lehendik gordetako piezen prebentziozko kontserbazio-lanak.

- Artxibatuta dauden kutxa eta tiraderen barrualdea ikuskatzea, dena behar bezala dagoela egiaztatuz eta piezen jarrera aldatuz.
- Fitxa informatikoaren eta piezen arteko datuen kontrola.

3. Bilduma lekuz aldatu denez, beste biltegi batera eramanda, piezen azterketa xehatua egin da, batez ere, egungo kontserbazio-egoera balioesteko, eta piezak horiek guztiak berriro katalogatu ditugu, pieza bakoitzari leku berria emanda eta pieza bakoitzaren fitxan aldatuta.

4. Nor gara gu? erakusketa iraunkorra

Iaz inauguratu genuen Euskal Abertzaletasunaren Museoak Ibañez de Bilbao kaleko 16.ean (Sabin Etxean) antolatu duen erakusketa iraunkorra.

Gure iragana, inoiz baino gaurkoago. Gure historiak nor garen adierazten digu. Gure bizitzaren atala da. Gure oraina zehazten du eta gure etorkizuna marrazten. Hala, ahaztu ezin diren milioika istoriok osatzen dute gure historia, gogoratzea merezi dutenak, gu definitzen gaituztelako. Horrela sortu zen Euskal Abertzaletasunaren Museoak Sabin Etxean aurkeztu zuen “Nor gara gu?” erakusketa erdi-iraunkorraren hazia.

Gure kulturaren, gure hizkuntzaren, mundua ikusteko gure moduaren, gure egungo gizartearen sorreran emakumeek izan duten garrantziaren eta gure ikurren txatalak erakusteko gunea, gure sustraietan barrenako ibilbide zoragarria eginda.



2022ko ekitaldian, gure historiarekiko interesa agertu duten bisita(ri) ugari izan ditugu, bai aurrez aurre, bai gure webgunearen eta sare sozialen bidez, 14 beira-arasetan ikusgai dauden objektuak, dokumentuak, argazkiak eta beste aztertzeak. Bisita horietako asko gidatuak izan dira. Beste batzuek, QR kodeen laguntzaz, euren kabuz egin dute bisita. Kode horietan, ikusmen-ahalmen murriztua dutenek lau hizkuntzatan goza dezakete erakusketaz, kode horietan kargatutako soinu-fitxategiei esker, bai eta erakusketan jorratzen dugun esparru bakoitzari buruzko informazio gehiago ematen duten artikuluei. Beste batzuek gure audiogida erabili dute bisitan.

Erakusketak karpeta didaktikoa eta liburuxka ere eskaintzen ditu; azkenak italieraz eta alemanes ere bai.

Nahi duen guztiak bisita dezan, 2023an ikusgai izango da asteazkenetan, 10:00etatik 19:00etara, sarrera librea dela, eta gainerako egunetan aldeztu aurretik hitzordua eskatuta.

Gure webgunean (www.museodelnacionalismovasco.eus) eta sare sozialetan, erakusketak hau osatzen duten objektu guztiei lekua egiten ari gaitzaizkie apurka-apurka, internautek bertako altxorak hurbilagotik ezagutzea izan dezaten.

ERAKUSKETA

EXPOSICIÓN



Honako erakusketa hau Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoaren ekimenez antolatu da UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Karmele Perez Urraza, Begoña Bilbao Bilbao eta Gurutze Ezkurdia Arteaga (Garaian ikerketa-taldea) ditu komisario.

EMAKUME ABERTZALE BATZAREN
mendeurrenean, Emakumeak Aberria Eginez
erakusketak emakume abertzale haiek egindakoak
erakusten ditu, Aberriaren alde egindako ekintza-
bizipenen berri emanda. Emakume horiek
bestelako gizarte-eredu baten aldeko apustua egin
zuten, horretarako, hainbat ekimen eta lan
bultzatuta.

Hasiera-hasieratik, EABk argiro erakutsi zuen zabalkundea, hezkuntza, elkartasun-zerbitzuak eta Aberriaren aldeko giza laguntza zituela eginkizun. Ongintzatik abiatuta euskararen aldeko konpromisoa hartu zuten emakumeok, bai euskal haur-eskoletan, bai emakumeen prestakuntzan.

Mugimendu feminista hark euskal emakume abertzaleak ahaldundu zituen, eta eragin handia izan zuen emakumeengan eta hurrengo belaunaldietako abertzaletasunean.

Erakusketa gaikako 6 multzotan banatuta dago eta, horietan, sei arlo zabal jasota daude.

Multzootan, elkarteak bere ibilbide historiko osoan egindako lana eta pentsamoldea jasota daude: [1] EABren sorrera; [2] EABren loraldia; [3] Jaungoikoa eta Lagi-zarra (JEL) doktrina; [4] EAB eta hezkuntza; [5] EAB eta gizarte-laguntza eta [6] EAB gerran eta erbestean.

[1] EABren SORRERA

Emakume Abertzale Batza sortzeko lehen urratsak 1922ko apirilean egin ziren, Cumann na mBan irlandar emakume abertzaleen elkartearen eredutzat hartuz. Hilabete geroago, maiatzaren 7an, hain zuzen ere, ehun emakume inguru bildu ziren eta elkartearen eratu zuten. Zuzendaritzako kideak izendatzeaz gain, EABren helburu nagusiak finkatu ziren: abertzaletasuna zabaltzen laguntzea ongintzaren eta propagandaren bidez, eta euskara nahiz euskal kultura sustatzea eta haien ezagutza sakontzea. Atal honetan, elkartearen lehenengo zuzendaritzako kideen biografiak ageri dira.

[2] EABren LORALDIA

EABren aldirik emankorrena 1931 eta 1936 urteen artekoa izan zen; bada, bosturteko hartan, elkartearen loralditzat har dezakeguna gertatu zen, eta horri lotuta, gainerako euskal lurraldeetara hedatu zen.

Hala, EABko taldeak sortu ziren Euskal Herriko herri gehienetan, eta 1936an, 28.000 emakume baino gehiago kide zuten EABk.

Boto-eskubidea eskuratu zenerako, EABko emakume askok mitinlari jarduten zuten ekitaldi politikoetan.

[3] «Jaungoikoa eta Lagi-zarra» DOKTRINA

EABren pentsamoldea Sabino Aranaren *Jaun-Goikua Eta Lagi-zarra* leloan funtsatu zen.

Euskal gizarte tradizionalen oinarri sendoa zuela eta etxekoandarearen irudiari hertsiki lotuta zegoela, EABko kideak etxeko ohiko eremutik atera ziren eta elkartasunaren, irakaskuntzaren eta kultura-transmisioaren esparruetan jardun zuten.

Eta denbora igaro ahala, gizartean eta politikan ere aritu ziren, betiere JEL doktrinari jarraiki.

[4] EAB ETA HEZKUNTZA

Hasiera-hasieratik, EABk jakitera eman zuen elkartearen zeregin nagusietako bat abertzaletasunaren zabalkundea egitea zela, hezkuntzan, elkartasunean eta gizarte-laguntzan aritzeaz batera.

Euzko Ikastola Batza ere antolatu zen hautazko hezkuntza-proiektu bati ekiteko, guztiz berritzailea hizkuntzari, helburuei eta pedagogiari dagokienez.

Hezkuntza informalean ere lan handia egin zuen EABk, bai haurrekin, bai helduekin. Bestalde, hizlari eta mitinlariei prestakuntza emateko, oratoria edo hizlaritza eskolak ematen zituzten.

[5] EAB ETA GIZARTE-LAGUNTZA

EABren aurrekariak *Euzkel Jantzitegia* edo *Ropero Vasco* delakoan (1908an sortu zen ongintza lantzeko helburuz) eta *Euzkotarren Aldezko Jel-bazkuna* (20ko hamarkadan, Afrikako frontera joaten behartutako gazteei eta euren familiei laguntzeko sortutakoa) elkarteetan ditugu.

Gizarte Laguntzarako Batzordea sortu zenean, Teresa Azkue izan zen zuzendari.

EABk, politika eta gizarte esparruetako hitzaldiak emateaz gain, Gizarte Laguntzari buruzko biltzarra antolatu zuen. Gizarte Laguntzarako Eskola sortzea zuen helburu biltzar hark. Erizainak prestatzeko ikastaroak ere eskaini zituen elkarteak 1932tik aurrera.

[6] EAB GERRAN ETA ERBESTEAN

Gerra garaian, emakumeek ahaleginak eta bi egin zituzten. Lana banatu eta gudarientzako arropa egiten zuten, bai eta mantak eta berokiak biltzen ere.

EABk atzeguardian gauzatutako lana ezinbestekoa izan zen, eta hainbat zereginetan, gizonak ordeztu zituzten andreek.

Euzko Gexozañen Batza eratu zen eta frontean nahiz ospitaleetan egindako lana halabeharrezkoa izan zen. Beharrezkoa zenean, erbestera joandako umeei lagundu zieten eta gударiei babes eskaini zieten.

Espioitza-lanetan ere gogotik jardun zuten emakumeek, Alava sareko kideak oso ezagunak izan zirela.

Erbestealdian, biziki garrantzitsua izan zen EABren ekinbidea, Iparraldeko nahiz Hegoaldeko erresistentzian ziharduten emakumeak harremanetan jartzeko.

Ondoko erakusketa hauetan ere parte hartu dugu:

1. «**Itzalpeko emakumeak. Mujeres en la sombra**», Erkibe Kultur Taldeak antolatuta, Debako Andre Mariaren elizako klaustroan.
2. «**37ko haurrak Erresuma Batuan – Los niños del 37 en el Reino Unido**» Athletic Club Museoak antolatutako erakusketa museoan.

3. «**Geugaz. 85 urte geroago**», Gaitegiz Arteagako Udalaren erakusketa, udaletxeke osoko bilkuren aretoan.

Gure pieza batzuk lagata, museo eta erakunde hauetako erakusketa iraunkorretan parte hartzen dugu:

- Gernikako Bakaren Museoaren Fundazioa
- Euskal Poliziaren Museoa
- Museo de l' Exili
- Eusko Legebiltzarra

6. Tailer didaktikoak

Tailerren helburu nagusiak hauek dira: sormena garatzea, haurren artean arte plastikoak sustatzea eta ezagutzea, euskara eta euskal historia sustatzea eta taldean eta bakarka lan egitea.

2022an, liburuxka digital bat sortu dugu, gure eskaintza didaktiko guztia ezagutzera emateko. Bertan, tailerrak deskribatu ditugu, bai eta tailerrok zer adin-tartetako umeei egitea gomendatzen dugun ere.

Era berean, tailerrak egin ditugu oporraldietan, eta euskal familia askori gure eskaintzaren berri eman diegu. Erantzun oso ona jaso dugu, eta, horren ondorioz, datozen urteetan ere eskaintzen jarraituko dugu.

Azkenik, Gabonetako liburuxka digitala sortu dugu beren-berengi, harrera bikaina izan duten tailer berriak gehituta.

Aurten **89 tailer didaktiko** baino gehiago egin ditugu, hamabi bat ikastetxei parte hartu dute horietan eta 4 eta 12 urte arteko **1.500 neska-mutikok** egin dituzte jarduerak.

7. Hitzaldiak / Dokumentalak

2022. urtean, museoak hitzaldi-ziklo berriak antolatu ditu eta oso harrera ona izan dute ikus-entzuleen artean.

«ITSASOA, BERDINTASUN LURRALDEA» ZIKLOA

SELMA HUXLEY. EUSKAL MARINELEN AZTARNEN BILA TERNUAN

2022an, museoaren jardueren barruko ziklo honi ekin diogu, itsasoa ederto ezagutzen duen Eduardo Araujo kazetari eta Onda Vasca irratiko *Itsas Tantik* programaren zuzendariaren parte-hartze eskuzabalri esker. Itsasoari lotuta egon diren edo egon

dauden pertsonen istorioak eta esperientziak ekarriko ditugu eta haien bizipenak ezagutarazi egingo ditugu.

Hasteko, Selma Huxley ekarri dugu ziklo honetara, bere seme Michael Barkhamen eskutik.

Selma Huxleyk orrialde argitaragabea idatzi zuen munduko itsas historian, hain zuzen ere, euskaldunek XVI. mendean Labradorren eta Quebecen ezarritako eskala

handiko lehen balea-industriarena: bertako portuak, baseen aztarna arkeologikoak eta portu haietan hondoratutako euskal galeoiak, horien artean San Juan ontzia (1565). Ternuako euskal lekune horietako bat UNESCOk izendatutako Gizateriaren Ondarea da.

Huxleyk, azkenean, arrantza-leku haiek guztiak berrosatu zituen – Kanadako eta Euskal Herriko historiaren kapitulu berria–, eta, 1981ean, Kanadako Gobernuak «nazio horren historiari azken urteetan egindako ekarpenik bikainenetakotzat» jo zuen Huxleyren lana.



Sabino Arana Fundazioak saria eman zion 1998ko edizioan, «euskaldunek Ternuan izandako jarduera ezagutzera emateko egin zuen lan zorrotzaren eta egindako ekarpenaren esker onez».

«EMAKUMEEK EGINDAKO ZINEMA» ZIKLOA

“DE CIERTA MANERA”

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak, KCD (Kultura Communication y Desarrollo) euskal GGKEarekin batera, Emakumeek egindako 11.

Zinema-jaialdiaren esparruan, aurtien Bilbon ikusi ahalko den filmetako baten proiektzioa antolatu du, hain zuzen ere, Sara Gómez zuzendari kubatarraren «De cierta manera» (Halako moduan) dokumentalarena.

«De cierta manera» dokumentala 1974an estreinatu zen, eta Mirafloresko (Habana) kolonian, emakume aurrerakoi baten eta baztertzeko zorian dagoen gizon tradizionalista baten arteko harreman gatazkatsua kontatzen du. Emakume kubatar batek zuzendutako lehen film luzea da, eta iraultzaren ondoko 70eko hamarkadako gizartean ere jarrera matxistak agertu egiten zirela eta gaur egun bezala aurre egin behar zitzaizela erakusten du. Sara Gómez zuzendaria 31 urte zituela hil zen, asmak jota, filma grabatu eta gutxira. Tomás Gutiérrez Alea, Julio García-Espínosa eta



Rigoberto López zinemagileek bukatu zuten lan teknikoa, eta gero estreinatu zen filma.

Garai hartan, filma muturrekoa izan zen, bai formari dagokionez, bai edukiari dagokionez, eta Sara Gómez Kubako eta Latinoamerikako garaiko zinemagile aurrendari eta zuzendari esanguratsuenetakotzat hartu zuten.

Dokumentala eskaini ostean, Marilyn Solaya zinemagile kubatarrarekin hitz egiteko aukera izan zuten bertaratutakoek.

«GUZTIONTZAKO KIROLA»

«EMAKUMEA KIROLEAN»

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak «Guztiontzako kirola» izenburua daraman hitzaldi-zikloa jarri du abian 2022an. Hitzaldi-sorta horren helburu nagusia kirol- jarduera sustatzea da, kirola gizarte aktiboagoa eta iraunkorragoa garatzen funtsezko tresna den aldetik. Era berean, kirol-mota guztiei ikusgaitasuna eta kirolariei ahotsa eman nahi zaie kirol-kazetari eta aurkezle Eduardo Velascok koordinatu eta moderatutako ziklo horretan. Lehen hitzaldia irailaren 28an izan da, Ana Urquijo, Athletic Clubeko presidente ohi, eta Iraia Iturregi, talde zuri-gorriko emakumezkoen entrenatzailearen eskutik. Bi-biak aurrendariak ditugu eta berdintasuneranzko bidean oztupoak gainditu izanaren eredu horren maskulinizaturik dagoen kirolaren esparruan.



«MATERIALEN BIZITZA MUSEOAN» ZIKLOA

«BILA IEZADAZU ARTE-ARDURADUN BAT! ERAKUSKETAK ETA KOMISARIOTZAK, HURBILTZE BAT»

Euskal Abertzaletasunaren Museoak, Bilboko Arte Ederren Museoarekin elkarlanean, hainbat topaldi jarri ditu abian, museoen barne-lana erakusteko eta Arte Ederretako unibertsitate-ikasturteetan ia jorratzen ez diren gaiei buruz sakontzeko. Unibertsitate-hezkuntzaren osagarria da ekimena, ikasleei erakusketa edo museo batera egindako bisitetan kontuan hartzen ez diren alderdietara hurbiltzeko aukera emango diena.

Miriam Alzuri, Bilboko Arte Eder Museoako Arte Moderno eta Garaikideko kontserbatzailea eta artearen historialariak parte hartu zuen hitzaldi interesgarri horretan.

Bertan, XX. mendeko artearen barruan, aldi baterako erakusketek hartu duten garrantzia eta komisarioaren eginkizuna aztertu ziren, gaur egun, literatura artistikoaren barruan bi gai horien inguruko azterketa eta ikerketa genero espezifikoa izateraino heldu direlarik.

Ikerteta akademiko eta argitalpen garrantzitsuen xedea, erakusketen eta horiek bultzatu zituzten komisarioen historia.

«PREBENTZIOZKO KONTSERBAZIOARI BURUZKO JARDUNALDIK» ZIKLOA

«PREBENTZIOZKO KONTSERBAZIOARI BURUZKO III. JARDUNALDIA»

Laneratzeko bidean hainbat espezializazio-esparru ezagut ditzaten, Humanitateetako ikasleentzako beharrezko tresnak eskaintzeko jardueren esparruan, Sabino Arana Fundazioak Museoko materialen prebentziozko kontserbazioari buruzko tailerra antolatu du gaur UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultateko ikasleentzat.

Tailer horietan, hainbat jakintza-arlotako adituen ezagutza eta Fundazioan praktikak egin dituzten ikasleen bizipenak lotu nahi dira.

Begoña Aristegik eman zuen jardunaldia. Begoña Arte Ederretan lizentziaduna da, zaharberritzean eta prebentziozko kontserbazioan

espezializatua, eta prebentziozko kontserbazioaren gaia ez ezik, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoaren bildumaren larrialdi-plana ere jorratu zen.

«KONTSERBAZIOARI BURUZKO JARDUNALDIK» JARDUNALDIA

«EHUN-GAIEN KONTSERBAZIOARI BURUZKO III. JARDUNALDIA»

Soledad Santistebanek, Geografia eta Historian lizentziadunak, prebentziozko kontserbazioan aditu eta ehungintzan espezializatuak, tailerra eskaini du hirugarren urtez jarraian Sabino Arana Fundazioan.

Soledad Santistebanek ehungintzan aurki daitezkeen arazo nagusiak aletu ditu, batez ere, materialen tipologiari dagozkionak, askotan, ingurumen-alderdien edo eskuzko erabileraren eraginez, endekatze joera handia duten zuntz naturalak landu behar ditugulako.

Horretarako, Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Museoaren ehun-funtsan urteetan egindako lana hartu du oinarritzat. Esan dezagun bilduma horrek mota askotariko mila ale baino gehiago dituela. Santistebanek aleok kontserbatzeko eta instalatzeko arrazoiak azaldu eta aztertu ditu, museoak dituen baliabideen ildotik.



«EMAKUME HANDIAK» ZIKLOA

«KARMELE LEIZAOLA. VENEZUELAKO DISEINU GRAFIKOAREN DAMANDREA»



Estereotipoak apurtuz. Ziklo berri honen bidez, hainbat jakintza-arlotan nabarmendu diren emakumeen erretratuak erakutsi nahi ditugu; izan ere, haien ahaleginari esker, ekandu eta ohitura asko aldatu egin dira, ustez, behintzat, gizonezkoak nagusi diren mundu honetan. Hala, emakume horien bizitza eta lortutakoetan sakondu duten pertsonen eskutik egingo dugu.

Sail honen bidez, haien borroka, pasioa eta lana ezagutarazi nahi genituzke, ezagutzen edo ezagutu zituztenei inspirazioa ematen baitiete eta pertsona askorentzat eredu baitira.

Amaia Fano kazetari euskal-venezuelarrak Karmele Leizaola (1929-2021) euskal-venezuelar diseinatzaile grafikoaren bizitza eta ibilbide bikaina aletu zuen Sabino Arana Fundazioan Ibilbide arrakastatsu horri esker, Venezuelako edizio grafikoaren “maistra” eta “damandre” bilakatu zen Leizaola.

Venezuelara erbesteratutako Donostiako familia txit abertzale eta ospetsu bateko kidea izan zen Karmele. Han, Venezuelen, euskal herritar horrek nazioarteko ospea lortu zuen eta giazko mitoa izan zen Venezuelako idatzizko hedabideen esparruan.

Karmele Leizaola lehen emakumea izan zen ale-kopuru handiko egunkari baten diseinu grafikoaren saileko zuzendaritza hartzen, kasurako *El Nacional* egunkariarena, eta 50eko hamarkadaz geroztik, herrialde horretan argitaratu ziren egunkari eta astekari ugariren irudiaren sortzailea, besteak beste, Momento aldizkariarena, non kazetaritzako pertsona arras esanguratsuekin lan egin zuen, barbarako, Gabriel García Márquez eta Plinio Apuleyo Mendoza. Era berean, Caracasko Euskal Etxean urte haietan egiten ziren argitalpenen diagramazioan gogotik eta erabateko eskuzabaltasunez parte hartu zuen, hala nola erbesteko euskal erresistentziaren agerkaria zen *Gudari* aldizkarian.

«ESPEDIZIOAK» DOKUMENTAL SAILA

«ALEX TXIKON. MENDI BILUZIA»

Sail honetan, hainbat espedizio eta horien bultzatzaileak erakutsi nahi ditugu, esperientzia horien guztien berri eta ikus-entzuleekin partekatzeko helburuz. 2022koa bigarren urtea izan da ekimen hau garatu duguna.

Alex Txikonen eskutik aurkeztu da. Txikonek 14 zortzimilakotara igo da eta 30 espedizio baino gehiago egin ditu, eta lemoarraren hurrengo erronka da Everestera igotzea neguan, oxigenorik gabe konkistatzea da bere hurrengo erronka.

Alex Txikon alpinista bizkaitarrak «La montaña desnuda/Mendi biluzia» aurkeztu zuen azaroaren 24an, Sabino Arana Fundazioan. Txikonek covid-19ak eragindako etxealdian atondu zuen filma.

2016ko otsailaren 26an, Alex Txikon alpinista bizkaitarrak Nanga Parbat mendiaren gailurra zapaldu zuen. Lehen aldia zen espedizio bat gailur horretaraino iristen zena neguan.

Txikonek berak hartutako irudi ezezagunak eta Red Bull Media House ekimenak proiektura ekarritako aireko irudi ikusgarriak biltzen ditu filmak. 70 bat minutuan, ikus-entzuleek aukera paregabea izango dute neguko espedizio baten muinean eta zailtasunean murgiltzeko, bai eta gailurrera iristearen garrantzia ulertzeko ere, baina, batez ere, kanpamentu nagusira iristearen garrantzia aditzeko, alpinista bizkaitarrak adierazten duen moduan, «gailurrera iritsiko zara kanpamentu nagusira gainerako taldekideekin batera heltzen zarenean».



8. Norbanakoen dohaintzak / kontsultak



2022ko ekitaldian, 1.200 pieza eta irudi baino gehiago jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Museoan, hirurogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker. Horietako gehienak argazki-funtsan gordetzekoak dira (asko eta asko argitaratu gabekoak) eta *Emakume Abertzale Batza* elkartearen sorreraren ildokoa dira.

2022ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak norbanakoek, erakundeek, ekoiztetxeek, udalek, argitaletxeek, telebistako programek, fundazioek, Eusko Jaurlaritzak edo beste museo batzuek egindako 320 kontsultari baino gehiagori erantzun die.

Argazki-funtsetik 410 irudi baino gehiago erabili dira, Facebook eta Instagram sare sozialetan eta DEIA egunkarian hedatzen den Historias vascas sailean argitaratzeko.

9. Webgunea/sare sozialak/Flickr

Sabino Arana Fundazioak egindako hitzaldi eta mintegi guztien irudiak ere Flickr plataforman kargatzen ari gara, parte-hartzaileek eta herritarrek, oro har, bertan sartzeko aukera izan dezaten.

Aurten, museoaren web-orria (www.museodelnacionalismovasco.eus) jarri dugu martxan. Bertan, museoaren *Nor gara gu?* erakusketa iraunkorrari eta aldi baterako

erakusketei lotutako guztia jasoko dugu. Museoaren bildumak 800 bisita baino gehiago izan ditu, eta azaroan jaso ditu atal honek bistaratzeko gehien: tailer didaktikoak, masterclass direlakoak, hitzaldiak, dokumentalak eta *Zure oroimenak partekatu* atalean jasotako azken dohaintzak.

Sare sozialetan, Facebooken, Instagramen, Twitterren eta Flickr-en ere aktibatu dugu gure parte-hartzea.

Facebooken eta Instagramen, 932 jarraitzaile ditugu.

Sabino Arana Sariak 2021: elkartasuna eta gizartearekiko konpromisoa

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria buru zela, Eusko Jaurlaritzako sailburuek, erakundeetako ordezkariak eta Euskadiko politika-, kultura- eta gizarte-arloko pertsona ospetsuek parte hartu zuten kultur ekitaldian.



Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXXIII. edizioa antolatu zuen urtarrilaren 30ean Bilboko Arriaga antzokian. Saridunaak hauexek izan ziren: **Luis Ugalde** apaiz jesuita euskal-venezuelarra, **Amaiurko Gaztelu Elkartea**, **Luis María Bengoa** kazetaria, **Bidasoa Kirol Kluba**, **Basque Culinary Center** eta **Aita Mari** migratzaileak erreskatatzeko ontzia.

Fundazioaren Patronatuko kideek lagunduta, Sabino Arana Fundazioaren presidentea, Mireia Zaratek, aurreko 32 edizioetan beste 180 pertsonak, elkartek eta erakundeak jasotako sariei gehitu beharreko aurtengo seiak banatzen joan zen ekitaldian.

Aita Mari erreskate-ontziaren lan humanitarioa; Luis Mari Bengoa kazetariak zabaldutako gure balioak eta tradizioen sustapena; Basque Culinary Centerren prestakuntzaren eta berrikuntzaren aldeko apustua; gure memoria historikoaren defentsa, Amaiur Gaztelu Elkartek bultzatua; euskal eskubaloia eta Euskadikoa nazioartean sustatu eta proiektatzea, Bidasoa Kirol Elkartearen bitartez; eta Luis

Ugalde jesuitak egindako bidegabekerien salaketa eta konpromiso soziala izan ziren azpimarratutako balioak kultura ekitaldian.

11 **BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK**

Sabino Arana Fundazioaren izaera pluralak aukera eman dio beste erakunde eta organismo batzuetako ordezkarietara bilerak egiten jarraitzeko, euren jardueragatik sortutakoez gain.

2022an honako hauek izan dira:

Apirilak 14:	Gudariei omenaldia Saibigaineko gudaren 85. Urteurrenaren kariaz, Bediaga komandantearen familiaren parte-hartzearekin.
Apirilak 16	Isaac Orube Artiñano alkate eta zinegotzi jeltzaleari omenaldia Lekeition, XX. mendearen lehen herenean.
Apirilak 26:	Gernikako bonbardaketaren 85. urteurrena.
Ekainak 16:	Amaiurko Batailaren 500. urteurrenako ekitaldietan parte hartzea.
Ekainak 16:	Ikurrinaren 128. urteurrenako ekitaldietan parte hartzea.
Ekainak 19:	Gudari eta milizianoei omenaldia. Bilboren defentsaren 85. urteurrena. Bilbo-Artxanda.
Irailak 18:	1936ko irailaren 25ean Zirardamendi-Aiastiako frontean (San Migel) –Elgoibar, frankisten aurrerapena gelditu nahian– hil ziren hamalau gudari eta milizianoei omenaldia . Elgoibarko Udalarekin eta hainbat memoria-elkarterekin lankidetzan.
Azaroak 14:	Euskaraldiaren hasiera dela eta (18an), Sabino Arana Fundazioa sare sozialetan agertzea.
Azaroak 26:	Frankismo garaian Orue txaletean errepresaliatutako emakumeei egindako omenaldian parte hartzea.
Azaroak 26:	Bittori Etxeberriaren omenaldian parte hartzea, Elizondon.
Azaroak 27:	Sabino Aranaren heriotzaren 119. urteurrena ospatzeko Sukarrietako hilerrian egindako lore-eskaintzan parte hartzea.
Azaroak 27:	Sabino Aranaren omenezko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioak ikurrin historikoa jaso zuen dohaintzan.

Beste topaketa batzuk Aranzadi, Gogora, udal, ikastetxe eta abarrekin

- Sabino Arana Fundazioaren webgunean kontsultatzen diren datutegien aldizkako eguneratzea, gure funtsetan gorderik dauden liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioa zabaltzeko.
- Sare sozialetan argitaratzeko urteurrenak (Facebook, Instagram eta Twitter)
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Jarduerak zuzenean eskaintzea, streaming bidez; bestetik, bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.
- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Lortutako emaitzen ebaluazioa

Hasieran adierazi dugun bezala, Nor gara gu? erakusketa erdi-iraunkorraren antolaketa eta abian jartzea eta gogoeta eta eztabaida mintzaguneari lotutako jarduerak izan dira Sabino Arana Fundazioaren 2022ko agendaren ardatzak. Mintzaguneari gagozkiola, Euzko Mendigoxale Batzaren mendeurrena, ikurrinaren jasoeraren mendeurrena Buenos Aireseko Laurak Bat Euskal Etxean (Argentina), Joseba Rezolaren heriotzaren 50. urteurrena, Alejandro Elizalde nafar erresistentearen heriotzaren 75. urteurrena, PDE-EDP, Euskaltzaindia, Zuzenbideko Euskal Akademia, Helduak eta abarrekin egindako jardunaldiak izan dira horietako batzuk.

Bide horretan guztian, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri oso anitza du, bai maila sozialean, bai politikoan.

Era berean, ahalik eta gehien saiatzen gara emakumeen parte-hartzea bultzatzen eta genero-berdintasuna sustatzen. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak dioenari jarraiki, Fundazioak, bere jardueretan, berdintasunaren printzipioa gauzatzeko beharrezko neurriak sustatzen ditu, eta printzipio horren oinarri diren balioak eta praktikak sustatzen ditu. Horrela, bai barruko erabaki-organoetan – Patronatuan, etab. – Bai gure gonbidatuen eta parte-hartzaileen artean abiaburu hori betetzen saiatzen gara.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioan euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko neurriak hartu ohi ditugula, euskararen dimentsio bikoitza gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko zatitzat hartuta.

Atera diren kopuru eta datuak ikusita, begiz jotako aurreikuspenak behar bezala bete ditugula uste dugu.

Bide horretan guztian, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri oso anitza du, bai maila sozialean, bai politikoan.

Esan beharra dago Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea dela fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtساتzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioan euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko neurriak hartzen ditugula, euskararen dimentsio bikoitza gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko zatitzat hartuta.

Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren arabera, «Ezagutzaren arloan oraindik urrats sendoak eman behar badira ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izango da».

Ondorioz, proiektu hau bat dator ESEPe jasotzen duen helburu nagusiarekin, bai eta helburua lortzeko proposatzen dituen zeharkako ildoekin ere, hau da, «Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragitea funtsezkoa da, noski, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak eskaintzea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategia bat eskaintzea, hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko oinarritzko azalpenak gizarteratzea, ezagutzatik hizkuntzaren erabilerarako jauzia egiten lagunduko duten jarduerak antolatzea, hizkuntzaren normalizazioaren arloan lidergoa izatea, eta abar»

- Urtarrilak 14: Sabino Arana Sarien XXXIII. edizioaren aurkezpena.
- Urtarrilak 19: Hitzaldia: *Mikromatxismoak*, Norma Vazquez psikologo feministaren eskutik, Gasteizko Vital Fundazioaren (Dendaraba) gelan.
- Urtarrilak 30: Sabino Arana Sariak. XXXIII. edizioa. Arriaga antzokian.
- Otsailak 9: Hitzaldia: *Chavezen estatu-kolpe ustelaren 30. urteurrena. Venezuela bidegurutzean*, Luis Ugaldere eskutik.
- Otsailak 10: Hitzaldia: *Alejandro Elizalde nafar jeltzale eta erresistentearen heriotzaren 75. urteurrena*, Etxahun Galparsore eskutik. Elizondon (Baztan-Nafarroa).
- Otsailak 16: Hitzaldia: *Osteak eta maulak: segurtasuna etxean*, Helduak elkarrearekin elkarlanean. Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiko agenteen eskutik.
- Martxoak 2: Mintegia Hernanin, "Entzunez eraiki" entzute aktiboko ekimenaren esparruan. Gaia: Erronka demografikoa eta trantsizio soziala Euskadin.
- Martxoak 10: Selma Huxley-ri buruzko hitzaldia: *Euskal itsasgizonen aztarnen bila Ternuan*, Michael Barkham Cambridgeko Unibertsitateko Geografian doktore eta Selma Huxleyren semearen eskutik.
- Martxoak 24: Memoria lantzeko kultura. Egiaren eta Justiziaren aldeko Memoriaren Eguna Argentinan. Elkarriketak (Estela Barnes de Carlotto), Musika emanaldia (Ignacio Guido Montoya Carlotto), *Contracciones* (Marta Betoldi eta Laura Azcurra) antzezlanak.
- Martxoak 30: Hitzaldia: *Tratu txarren emailak bat aita ona izan al daiteke?*, Norma Vazquez psikologo feministaren eskutik, Loiola Zentroan, Donostian.
- Apirilak 14: Gudariei omenaldia Saibigaineko batailaren 85. Urteurrenaren kariaz, Bediaga komandantearen familiaren parte-hartzearekin.
- Apirilak 16: Isaac Orube Artiñano alkate eta zinegotzi jeltzaleari omenaldia.
- Apirilak 26: Gernikako bonbardaketaren 85. urteurrena

- Maiatzak 4: *Indarkeria matxista: erreparazioa eta salaketa* hitzaldia, Norma Vázquez psikologo feministaren eskutik, Sabino Arana Fundazioan.
- Maiatzak 5: *Agirre Lehendakariarekin Berlinen* hitzaldia, Ingo Niebel historialari eta kazetariaren eskutik.
- Maiatzak 7: Emakume Abertzale Batzaren lehen bileraren mendeurrena. Bilboko Euskalduna jauregia.
- Maiatzak 11: Entzunez eraiki. Entzute aktiboko ekimenaren barruko mintegia. Gaia: Klima-aldaketa.
- Maiatzak 13: Mintegia EDPrekin elkarlanean. Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzia –CoFoE–: ondorioak. *Eta orain zer?*
- Maiatzak 18: Entzunez eraiki. Entzute aktiboko ekimenaren barruko mintegia. Gaia: Euskal erakunde-sistemaren etorkizuneko erronkak.
- Maiatzak 18: Gregorio Arrieni buruzko hitzaldia, Joxe Garmendiaren eskutik.
- Maiatzak 20: *Euskal hezkuntzaren oraingo eta etorkizuneko erronkak* mintegia.
- Maiatzak 24: Emakumeek egindako zinema. Sara Gómez zuzendari kubatarraren «De cierta manera» dokumentalaren proiektzioa. Solasaldia Marilyn Solaya kubatar aktore, gidoilari, zuzendari eta ekoizlearekin.
- Maiatzak 25: *Pagasarri edo Himalaia lankidetza?* mintegia Garapenerako lankidetzari buruzko legeen erreformak. Besteak beste, honako hauek parte hartu zuten: Asier Hernando, lankidetzako aholkularia eta Latinoamerika eta Kariberako Oxfameko eskualdeko zuzendari ohia; Leire Pajín, Osasun eta Gizarte Politikako ministro ohia; eta Laura Celià, Balear Uharteetako Gobernuako Lankidetzarako zuzendari nagusia.
- Maiatzak 25: Hitzaldia: *Pagasarri edo Himalaia: lankidetza ulertzeko bi modu desberdin. Zeinetan dago Euskadi?*, Asier Hernandoren eskutik.
- Ekainak 1: Hitzaldia: *Zer esan nahi du onartzeak? EZ beti da EZ*, Norma Vázquez psikologo feministaren eskutik, Iruñeko Tres Reyes hotelean.
- Ekainak 2: *Orixeren Oparia* liburu eta disko aurkezpena: Gregorianoa euskaraz (Urte Guziko Meza-Bezperak. Orixe).

- Ekainak 13: Mintegia: *Sexu-abusuak adingabeei hezkuntza ez-formalaren esparruan: kirola eta aisialdia.*
- Ekainak 14: Entzunez Eraiki mintegia, Iruñean: *Identitatea* Hizlariak: Ana Urkiza, Jon Sarasua eta Ion Muñoa.
- Ekainak 15: *Amaiur gaztelu baltza* komikiaren aurkezpena. Nabarralde Fundazioarekin lankidetzan. Parte-hartzaileak: Angel Rekalde, Nabarralde Fundazioko zuzendaria eta Amaia Ballesteros, marrazkilari eta ilustratzailea.
- Ekainak 16: Amaiurko gudaren 500. urteurreneko ekitaldietan parte hartzea.
- Ekainak 16: Ikurrinaren 128. urteurreneko ekitaldietan parte hartzea.
- Ekainak 19: 1937-2022: Gudari eta milizianoei omenaldia. Bilboren defentsaren 85. urteurrena. Bilbo-Artxanda.
- Ekainak 24: EHUren udako ikastaroak: *Politikaren erronkak*. Donostiako Miramar Jauregian.
- Ekainak 29: Entzunez Eraiki mintegia, Gasteizen: *Digitalizazioa eta berrikuntza*. Hizlariak: Ander Zubeldia, Telefonica-Euskadiko Administrazio Publikoko arduraduna; Alberto Ortiz de Zárate, DesideDatum Data Companyko zuzendaria; Leopoldo Díaz de Apodaka, Zibersegurtasuneko Euskal Zentrokoa; Aitor Moreno, Adimen artifizialean eta konputazio kuantikoan aditua Ibermátican; David Ruiz, Startup-eko CEO; eta Nuria Musteiro, Versia Digital Business-eko zuzendaria eta Marketin Korporatiboko zuzendaria.
- Uztailak 5-6: UPV-EHUren udako ikastaroak: *Euskal nortasunaren erronkak XXI. mendean*.
- Uztailak 20: Mintegia: *2030eko euskaldun eleaniztuna*. Hizlariak: Xabier Barandiaran, Bingen Zupiria, Jokin Bildarratz eta Elixabete Larrinaga.
- Irailak 1: Hitzaldia Altasuko Iordia Kultur Etxean. Mikel Irujok eta Arantxa Tapiak gure industriaren udazken-neguetako aurreikuspenak aztertu zituzten.
- Irailak 16: Euskadin garatu diren eraldaketa handien zikloa. 1. saioa: Eraldaketa ekonomikoa, Asier Alea eta José Luis Ruiz de Muniain ekonomialariek.

- Irailak 18: 1936ko irailaren 25ean, Zirardamendi-Aiastiako (San Migel) frontean hil ziren hamalau gudari eta milizianoei omenaldia. Elgoibarko Udalarekin eta hainbat memoria-elkarterekin lankidetzan.
- Irailak 28: *Emakumea Kirolean* hitzaldia, Ana Urquijo eta Iraia Iturregirekin, «Guztiontzako Kirola» zikloaren barruan.
- Urriak 7: *EABk 100 urte. Emakumeak Aberria eginez* erakusketaren inaugurazioa, Donostiako Aiete Kultur Etxean.
- Urriak 13: *CLANDESTINA Radio Euzkadi, un irrintzi desde Venezuela* liburuaren aurkezpena/hitzaldia, Koldo Anasagastiren eskutik.
- Urriak 14: Mintegia Vitoria-Gasteizen, Entzunez eraiki ekimenaren barruan. Gaia: Ongizatearen etorkizunekoak
- Urriak 18: *Hegemonia, gatazka eta botere balantzea Ekialde Hurbilean* hitzaldia, Alberto Spektorowski Tel Aviveko Unibertsitateko Zientzia Politikoetako irakasle emerituaren eskutik.
- Urriak 19: Hitzaldia: *Bila iezadazu arte-arduradun bat! Erakusketak eta komisarioak, hurbilketa bat*, Miriam Alzuriren eskutik.
- Urriak 20: Mintegia SAFen, entzute aktiboko prozesuaren esparruan. Gaia: Lanaren etorkizuna
- Urriak 20: Hitzaldia: *Kirola: pandemiaren aurreko, bitarteko eta ondoko gizarte-tresna*, Gorka Iturriaga (EJ-Kirol Saila) eta Gabriel Saez (GOfit) hizlarien eskutik.
- Urriak 21: Euskadin gertatu diren eraldaketa handien zikloa. 2. saioa: Eraldaketa gizartean, Juan M^a Atutxa eta Paul Ríosen eskutik.
- Urriak 26: *Demokraziaren defentsa gizarte digitalean* mintegia EDPrekin elkarlanean. Hizlariak: Daniel Innerarity, Miquel Urmeneta, Rafael Suso, Carmen Beatriz Fernández eta Andrzej Potocki.
- Urriak 27: «Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren XXX. urteurrena» mintegia. Artxibo historikoak gizarte garaikidean: Legea, Ondarea eta Memoria. Hizlariak: Mikel Aizpuru, Jon Bagües, Henar Alonso eta Iñaki Goigana.
- Azaroak 3: Entzunez Eraiki entzute aktiboko ekimenaren barruko mintegia. Gaia: Euskadik 2030 Agendari egiten dion nazioarteko ekarpena. Hizlariak: Iñigo Arbiol, Carmen Sánchez-Miranda eta Giovanni Camilleri.

- Azaroak 10: Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren XXX. urteurrena. Hitzaldia: *Paperezko memoria. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren hiru hamarkada*, Eduardo Jauregi eta Luis de Gezalaren eskutik.
- Azaroak 11: Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoko ehun-bildumaren kontserbazioari buruzko hitzaldia, Soledad Santisteban Geografia eta Historiako lizentziadunaren eskutik. Jarraian, Masterclass: *Ehun-kontserbaziorako euskarriak, prozedurak eta materialak*.
- Azaroak 11: Euskadin gertatu diren eraldaketa handien zikloa. 3. saioa: Eraldaketa Administrazioan, Javier Bikandi eta Ina Etxebarriaren eskutik.
- Azaroak 14: Euskaraldiaren hasiera (18an) dela eta, Sabino Arana Fundazioa sare sozialetan agertu zen (14an).
- Azaroak 17: Hitzaldia: *Karmele Leizaola, diseinu grafikoaren damandrea Venezuelan*, Amaia Fanoren eskutik.
- Azaroak 22: Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako dekalogoia egiteko topaldia/mintegia. Norma Vazquezekin eta euren esperientzia pertsonal, laboral, aktibista eta militanteagatik gaiari buruzko ezagutza duten erakundeetako eta elkarte feministetako ordezkariekin.
- Azaroak 22: Alex Txikonek egin eta zuzendutako *La montaña desnuda / Mendi biluzia* film luzearen emanaldia. Alex Txikonek berak parte hartu zuen saioan.
- Azaroak 26: Frankismoaren garaian Orue txaletean errepresaliatutako emakumeei egindako omenaldian parte hartzea.
- Azaroak 26: Bittori Etxeberriaren omenaldian parte hartzea, Elizondon.
- Azaroak 27: Sabino Aranaren heriotzaren 119. urteurrena ospatzeko Sukarrietako hilerrian egindako lore-eskaintzan parte hartzea.
- Azaroak 27: Sabino Aranaren omenezko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioak ikurrin historikoa jaso zuen dohaintzan.
- Abenduak 1: Hitzaldia Helduak elkartearekin elkarlanean: *Adin guztietan mendira*. Hizlaria: Kepa Lizarraga, Bizkaiko eta Euskal Mendizale Federazioko medikua.

- Abenduak 15: *Euskararen Legeak 40 urte* mintegia, Euskaltzaindiarekin elkarlanean.
- Abenduak 16: Euskadin gertatu diren eraldaketa handien zikloa. 4. saioa: Eraldaketa gizartean, Daniel Innerarity eta Xabier Aierdiren eskutik.
- Abenduak 20 *Emakumeak aberrigintzan* mintegia. Hizlariak: Roman Berriozabal, Karmele Perez, Begoña Bilbao, Mónica Calvo, M^a Esther Solabarrieta eta Nagore Garamendi.